



ALBOAN

Boluntariotzarako motibazioak gaur egun



GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN PARA
EL DESARROLLO



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

■ Hezkuntza baliabideak ALBOAN

...

20. Hiritartasunerako Hezkuntza irakasgairako material osagarria. Lehen Hezkuntza. (2011)
21. Hiritartasunerako Hezkuntza irakasgairako material osagarria. DBH, Lehenengo zikloa. (2011)
22. Hiritartasunerako Hezkuntza irakasgairako material osagarria. DBH, Bigarren zikloa. (2011)
23. Hiritartasunerako Hezkuntza irakasgairako material osagarria. Batxillergoa. (2011)
24. Nazioarteko boluntariotza esperientzia: faseak eta protagonistak. (2011)
25. Boluntariotzarako motibazioak gaur egun. (2011)

Boluntariotzarako motibazioak gaur egun



Dokumentu hau 6 dokumentuz osatutako bilduma bateko alea da. Dokumentu horiek erreferentziazkoak dira bai nazioarteko boluntarioen prestakuntzan dabiltzan prestakuntzarako, bai boluntario-lanetan diharduten pertsonentzat. Dokumentuotan, gai bat garatzeaz batera, hura bakarkako nahiz taldekako dinamiketan lantzeko proposamenak jasotzen dira. Eskuaratean duzun gaiaz gain, badira ere beste zenbait gairi buruzko dokumentuak: nazioarteko boluntariotzaren definizioari buruzkoak, boluntariotza kultura-arteko testuinguruetan kokatzen dutenak, garapen-eredua hizpide dutenak eta gatazkak nola kudeatu azaltzen dutenak. Material horiek gure bulegoetan eska ditzakezu, bai eta gure webgunean ere: www.alboan.org

Argitaratzailea:

ALBOAN

Aita Lojendio kalea 2, 2. • 48008 Bilbao
Tel.: 944 151 135 • Faxa: 944 161 938
alboanbi@alboan.org

Barañain etorbidea, 2 • 31011 Iruñea
Tel.: 948 231 302 • Faxa: 948 264 308
alboanna@alboan.org

Erronda kalea, 7, 4. Ezk. • 20001 Donostia
Tel.: 943 275 173 • Faxa: 943 320 267
alboangi@alboan.org

Estenaga Apezpikua, 1 • 01002 Gasteiz
Tel.: 945 202 676 • Faxa: 945 202 676
alboanar@alboan.org

www.alboan.org

Egilea: ALBOAN

Data: Ekaina 2011

Itzulpena: Bakun

Diseinua eta maketazioa: Marra, S.L.

Inprimatzailea: Lankopi S.A.

Lege-gordailua: BI-1710-2011

Lan honen erreproduktzio partziala baimentzen da, baldin eta helburu komertzialik ez badu eta jatorria aipatzen bada.

Aurkibidea

Hasteko	5
Sarrera	5
Sakontzeko	7
Zergatik boluntariotzaren aldeko apustua?	7
Boluntarioen arrazoiak	7
Bidaltze- eta harrera-elkarteen arrazoiak	10
Boluntarioen balizko irudipenak.	11
Arrazoiak eta itxaropenak.	
Boluntarioen irudipenak	11
Bidaltze-elkarteak	12
Harrera-elkarteak	14
Gauzak guk uste bezala ez direnean	15
Joan-etorriko bidean barrena goazela, irudipenak, itxaropenak eta motibazioak errealitate jakin batean uztartzen	25
Zenbait gida-lerro boluntarioentzat	25
Zenbait gida-lerro bidaltze-elkarteentzat	26
Zenbait gida-lerro harrera-elkarteentzat	27
Ondorio modura	29
Nazioarteko boluntariotza: erronkak eta premiak	29

Praktikan jartzeko	31
Norbere burua ezagutzeko dinamikak	33
Errealitatea ezagutzeko dinamikak	38
Gaian sakontzeko dinamikak: boluntariorza, motibazioak eta itzaropenak	42
Komunikazioa lantzeko dinamikak	55
Bideo-foruma	58

Hasteko

SARRERA

Gaur egun ezagutzen dugun nazioarteko elkartasun-mugimenduaren funtsetako bat da nazioarteko boluntarioria. Hala ere, nazioarteko lankidetzan dabilzanen artean ez du behar adinako errekonozimendurik jaso, ez eta legezko errekonozimendu handiegirik ere. Orain dela urte gutxi arte, nazioarteko elkartasun-mugimenduetan interesa zuten pertsonentzat lanean hasteko modu ezin hobea izaten zen nazioarteko boluntario-lanean jardutea¹. Hartan ematen zuten denbora ez zen beti berdina izaten: baziren labur jotzen zuten esperientziak², eta baziren, halaber, luze irauten zuten esperientzia askotarikoak. Horri esker, pertsona askok eta hurbilen zuten inguruneak ere harreman zuzena edota bitartekatua izan zuten txirotutako herrialdeetako errealtateekin. Misiolariez, nazioarteko brigadistez, abenturazaleez eta politika- eta gizarte-arazoetan konprometituta zeuden pertsoenez ari gara hizketan.

Testuingurua aldatu egin da, bai eta nazioarteko boluntarioria ere. Azken urteetan nagusi izan diren aldaketen artean, aipa ditzagun hauek: (1) garapenerako lankidetzak eta hezkuntza, eta giza eskubideak ikasgai nagusi dituzten espezializazio-ikasketak eskaintzen dira; (2) honezkero egituratuta eta profesionalizatuta da goen nazioarteko elkartasun-sektorea erabat sendotu da; (3) laurogeita hamarreko hamarkadan, erakunde publikoek boluntarioria nabarmen sustatu zuten; (4) programa publikoak egin dira nazioarteko elkartasunean interesa duten pertsonak sentsibilizatzeke eta prestatzeke; (5) nazioarteko lankidetzak-mugimenduetan,

¹ Nazioarteko boluntarioriazaren gaia Hezkuntza baliabideak (24-29) dokumentu hauetan sakonago jorratzen da.

² Iraupen laburreko esperientziak astebeteko eta hiru hilabeteko bitartean irauten dute; iraupen luzekeo esperientziak, berriz, sei hilabeteko eta hiru urte bitartean.

kooperante figuraren errekonozimendua eta garapena; eta (6) Europako zenbait herrialdetan, hainbat lege egin dira, boluntarioen eta kooperanteen lana bermatzeko.

Aldaketa horiei guztiei esker, gero eta pertsona gehiago dira nazioarteko elkartasunarekiko sentibera dutenak; pertsona horietako batzuek, gainera, beren lanbidean aurrera egiteko gune bihurtu dute esparru hori. Sektore horrek gizarte zibilaren baitan izandako garapen horrek antzeko garapen-maila izan du esparru publikoan (udaletatik nazioarteko erakundeetara); esparru pribatuko entitateak ere sartu dira sektore horretan.

Horren guztiaren ondorioz, interesatuta dauden pertsonak askoz aukera gehiago dituzte, eta horri esker, aniztasun handiagoa dago; baina, aldi berean, eskaintza bakoitza askoz zehatzagoa eta berariazkoagoa da. Aukerak ugaritzeaz batera, motibazio askotarikoek bultzatuta esparru horretan lan egin nahi duten pertsona-kopurua ere nabarmen handitu da. Gai horri buruz jardungo dugu dokumentu honetan.

Gogoan har dezagun, gaur egun, gizarte-erakundeak, pertsona interesatuak eta erakunde publikoak errealitate berri horiek argitu nahian ari garela, haietara moldatzeko. Testuinguru horretan onartu beharra dago guztiz aldatu direla gaur egun boluntarioen, bidaltze-elkarteen eta pertsona horiei harrera egiten dieten elkarten motibazioak eta itxaropenak. Horrenbestez, beharrezkoa da egoera berri horretaz jabetzea, eta bai boluntario-programen helburuak, bai esperientzia horretarako behar diren prestakuntza, lan eta bide-laguntza hartara egokitzea.

Sakontzeko

ZERGATIK BOLUNTARIOTZAREN ALDEKO APUSTUA?


Gorago ere esan dugu boluntariotzaren aldeko apustua izan dela gaur egun hain ezagun zaizkigun nazioarteko elkartasunari lotutako mugimendu eta erakunde ugarien oinarria eta funtsa. Luzaroan boluntariotzan jardundako elkarte askok hasierako apustuari eusten diote. Nolanahi ere, lehen baino jarduera eta ekintza gehiago burutzen dituztenez, erlatiboki behintzat boluntariotzak pisua galdu du elkarte horietako antolamendu-eskemetan. Horrez gain, elkarte horietan, bai eta berriki sortutakoetan ere, iraupen laburreko nazioarteko boluntariotzaren aldeko apustua egin dute nagusiki, edo/eta kooperanteen aldekoa bestela.

Boluntarioen arrazoiak

Azken urteetan, nazioarteko boluntariotzarekin dihardugun erakundeok ikusi dugunez, oro har zenbait aldaketa izan dira boluntariotzan interesatuta dauden pertsonengan. Pertsona hauek, orokorrean, orain hamabost urte³ baino batez beste adin gehiago dute. Egia da aldaketa horiek nabarmenagoak direla iraupen luzeko esperientziei ekiten dietenengan, eta ez hainbeste iraupen laburreko lanak egiten dituztenengan, nahiz eta azken kasu horretan ere aipatutako joerari eusten zaion. Horrenbestez, boluntariotzan interesatuta dauden pertsona asko lanbide batean jardundakoak izaten dira. Eta lehen ez bezala, nazioarteko boluntariotzan hasten diren pertsona askok ez dute inoiz antzeko boluntariotzarik egin; are gutxiago, nazioarteko elkartasun-mugimenduen inguruan. Harrigarria da, halaber, nazioarteko

³ Iraupen luzeko (bi urte) boluntariotzari buruz egindako ikerketa batek dioenez, VOLPA programan hasitako en batez besteko adina 27 urtekoa da. www.alboan.org/portal/documentos.asp?id=73

elkartasun-mugimenduetan orekatua izatea gizonetzko eta emakumezko boluntario-kopurua; joera hori argi eta garbi antzematen da iraupen luzeko esperientzietan.



Profil-aldaketa horren ondorioz, boluntariora sustatzea helburu duten gizarte-erakundeetara hurbiltzen diren boluntarioen motibazioak eta itxaropenak ezberdinak izaten dira. Lehen pertsona gehienentzat nagusi baziren ideologia eta konpromiso soziala -eta, kasu askotan, sinesmenak ere bai-, gaur egun motibazio garrantzitsuena garapen pertsonala izaten da. Iraupen laburreko esperientzia horietan, adin gutxiagokoak dira nagusi-, garapen pertsonal horri lotuta doakio garapen profesionalari edo gaitasun profesionalak erdiesteko praktikari. Luzeago irauten duten esperientzietan, pertsonak beren burua bestelako testuinguruetan saiatu nahi izaten dute, pertsona desberdinekin topo eginez beren burua aurkitu nahi izaten dute; azken batean, pertsona gisa hazi eta beren bizi-esperientziak sakondu nahi izaten dituzte. Boluntariora modernotik posmodernora doan paradigma-aldaketak, boluntariora modernoa sustatzen zuten gizarte eta erakundeeta-

tik boluntariotza posmodernoan sustatzen duten gizarte eta erakundeetara doan paradigma-aldaketak ezinbestez eragin behar die boluntario-programei ere.

Aipatutako aldaketa horrek ez du, noski, ukatzen boluntarioek motibazio ugari dituztenik; baina bai agerian uzten du aldaketa bat izan dela zenbait motibaziori ematen zaien garrantzian eta lehentasunetan, eta orobat aldatu direla boluntariotzari ekiteko erabakia hartzera eramaten gaituzten motibazio gailenak (lehen, ideologia; gaur egun, bizitzari zentzua ematea).

Era berean, geure erabakia hartzean garrantzitsuak izan litezkeen beste motibazio batzuk ere badirela gogoan hartu behar dugu, nahiz eta motibazio horiek ez diren oso mesedegarriak gure esperientziarako; adibidez, lanean edo maitasun-harremanetan edo familia-harremanetan izandako egoera desatsegin batetik ihes egiteko modua bilatu nahi izatea. Zenbaitetan guztiz erabakigarria izaten da konpontzen ez dakigun egoera batetik ihes egin nahi izatea. Kasu horietan, baina, komeni da egoerari lehenbailehen aurre egitea eta nola edo hala konpontzea. Nazioarteko boluntariotzan hasi baino lehen norberaren arazoak konpontzen ez badira, oso posible da boluntarioak bere arazoak motxilan eramatea, eta esperientzian zehar gaintetik ezin kentzea.

Nolanahi ere, esan beharra dago boluntarioen artean beti izaten direla motibazio ugari; besteak beste, abenturazaletasuna, ideologia, justiziarekiko atxikimendua, fedea, altruismoa eta besteek laguntzeko gogoia, norberaren buruaren bilaketa eta garapen profesionala.

Motibazioen arabera, bizi nahi den esperientziari buruzko usteak ezberdinak dira. Motibazioak igartzea eta haiek esplizituki zehaztea bide egokia izan liteke -bai boluntarioentzat, bai haiek bidaltzen eta hartzen dituzten elkarteentzat- tartean diren guztiek espero dutena bete dadin.

Bere motibazioak eta itxaropenak argi baditu, boluntarioak erraz igarriko ditu esperientzian zehar jazoko diren aldaketak. Esperientziaren une jakin batean, motibazio bat edo beste bete liteke (norberarenaren aldean desberdina den errealitate batean bizitzea, beste kultura batzuen berri izatea, zeregin jakin batean jardutea...), eta bere horretan agortu; orduan, beste zerbaiten esperoan egongo gara. Ona da gure motibazioen eta itxaropenen kontzientzia izatea, haiek argi eta garbi zehaztea, eta behar bezala balioestea zenbateraino eska diezaiokegun gure buruari eta esperientziari berari uneoro geure motibazio eta itxaropen guztiak bete daitezela.

Bidaltze- eta harrera-elkarteen arrazoiak

Bai bidaltze-elkartek, bai harrera-elkartek dituzten helburuen artean hurrengo hauek aurkitzen dira: pertsonen prestakuntza eta gaitasunak eskaintzea eta beren gizarte-inplikazioa bermatzea. Bi elkartek gizarte zibilean txertatuta daude, eta defendatzen dituzten gaiekiko sentibera duten pertsonen osatzen dute euren oinarria; hau da, beren lanean laguntzen, babesa eta adorea eskaintzen dizkieten pertsonen.

Elkarte horiek apustu garbi bat egin dute: pertsona guztientzat -batez ere, balia-bide gutxi dituztenentzat- gizarte eta mundu duinagoa lortzea, eta hartan, herritartasun kualifikatu eta konprometitu baten alde egitea. Boluntariotza apustu horren aurpegi zehatza besterik ez da.

Elkarte horietako askotan -Iparraldekoetan, bereziki-, boluntariotza gizartearen oinarri-oinarrian dago, eta horrek zentzua eta legitimitatea ematen ditu. Gainera, gizarte duinagoak erdiesteko elkartek horiek abiatutako sentsibilizazio-, heziketa- eta prestakuntza-prozesuetan -horren aldeko apustua eginga baitute elkartek- kokatzen da boluntariotza. Horrez gain, elkarren topaleku izatearen esperientzia eta aukerak bitartekoak dira, ikuskerak, jarrerak, izaerak eta jokabideak aldatzeko; aldaketa ezinbestekoak, inondik ere, bai boluntarioak bidaltzen dituen gizartearentzat, bai hartzen dituenarentzat. Bestalde, boluntariotzari esker, norberaren bizipenei eta errealitate jakinei buruz hitz egitea gertuko zer bait bihurtzen da; izan ere, sekulako ahalmena du gauzak argi eta sinple esan, eta jendearengana erraz iristeko. Jendeak bere ingurunean bertan jasotzen ditu mezurik; bestela jaso ere ez lituzkete egingo, ez bidaltze-elkartek, ez harrera-elkartek ez baitira horretarako gauza. Beraz, elkartek gehienentzat, boluntariotza ateak zabal-zabalik dituen leiho baten modukoa da, talde horiek errealitate desberdin batean txertatzeko balio diena.

Era berean, boluntariotzaren eraginez, tartean diren elkartek guztiz bestelako harremana izatea ahalbidetzen dute beren artean. Sarreran esaten genuenez, gertutasuna eta elkarren ezagutza oinarritzat dituen harreman-mota hori elkartasunaren eta beste mundu posible baten erakusgarri da. Izan ere, beste mundu horretan harremanak giltzarriak dira; denbora, erritmoak eta prozesuak ez dituzte inork ezartzen; gure lanaren jomugan dauden pertsonen begirunea zor zaie; ekonomiak ez du dena baldintzatzen ia ezin aldatuzko moduan.

BOLUNTARIOTZAREN BALIZKO IRUDIPENAK. ARRAZOIAK ETA ITXAROPENAK

Boluntarioen irudipenak

Boluntarioek erabaki garrantzitsu bat hartzen dute: beren inguruko leku eta pertsonak uztea, ezagutzen ez dituzten pertsonekin egoteko. Zerbaiti hasiera ematen dion erabakia da, eta haren garrantzia lanean emango den denboraren arabera da. Erabaki hori hartzean, esperientzia imajinatzeko zenbait modu eta ideia guztiz garrantzitsuak izaten dira.

Pertsonak edonora joateko eta edozer egiteko prest badaude ere, haien subkontzientean zenbait ideiak eragin berezia izaten dute esperientzia horri aurre egiteko. Besteak beste, aipa ditzagun hauek: (1) esperientzia on bat izatea eta lankide izango ditugun pertsonekin harreman zintzoa izatea; (2) zeregin zehatzetan ekarpenak egitea eta egin dugun horrek ikusteko moduko ondorioak izatea; (3) egindako lanagatik geure burua aitortua sentitzea eta errekonozimendua izatea. Kasu gehienetan, emakumezko boluntarioek hemen emandako hurrenkeran jarriko lukete beren irudipenen garrantzia; gizonezkoentzat, aldiz, zereginarekin lotutako arazoak harremani lotutakoak baino askoz garrantzitsuagoak izaten dira. Nolanahi ere, esperientziaren alderdi onak azpimarratzen dira oro har, haren bidez geure burua hobetuko dugulakoan; hala ere, gure irudimenak ez du normalean ikusten geure burua hobetzeko ezinbestekoa dela aurrez behaztopa egitea, zailtasunak gainditzea eta arazoak kudeatzea.

Ohikoa izaten da boluntarioak etxera itzuli eta beren esperientziaren berri ematean, bizi izandakoaren alderdi onak aipatzea batez ere; horrelakoetan -bestela ere halaxe jokatu ohi dugu-, zailtasunen, gatazken eta abarren garrantzia txikiagotzeko joera egoten da.

Dena dela, ia beti errealitatea fikzioari gailentzen zaion arren, gutxitan gertatzen dira gauzak guk pentsatu bezala eta, batzuetan, hainbat arazo sor daitezke; adibidez, (1) boluntarioen lanak errekonozimendu nahikorik ez izatea (hori normalagoa izaten da emakumeen kasuan); (2) talde-lanean jardutea zaila izatea; (3) boluntarioak, komunitateak edo erakundeak perfektuak ez izatea; (4) errealitatea imajinatu dugun bezain “atsegina” ez da; edo (5) baita klima oso gogaikarria gertatzea ere.

Bidaltze-elkartek


Boluntarioa bidaltzen duen elkarteak esperientzia hasiera-hasieran proposatu bezala irtetzea nahi izaten du, horretarako konpromisoa hartu baitu; beraz, (1) esperientziari ekin baino lehen, esperientziak irauten duen denbora-tartean eta boluntarioa etxera itzultzen denean, elkarteak bide-laguntza eskaini behar dio boluntarioari; (2) boluntarioak bidaltze-elkartea kide duen elkarte baten lanari ekarpenak egiteko modua izan behar du; eta (3) pertsona konprometituagoak lortzen saiatu behar du, munduan berdintasuna eta elkartasuna nagusi izan daitezen.

Horretarako, elkarteak behar bezala hautatu behar ditu boluntarioak, eta prestakuntza, orientazioa eta bide-laguntza eskaini behar dizkie; gainerako bidaltze-elkartekin ere estu lan egin behar du, eta proiektuan sartuta dauden eragileen esperientziaren jarraipena eta ebaluazioa egin behar ditu.

Bidaltze-elkartekin batera egindako lantegietan ikusi dugunez, funtsezkoa da kontzientzia harrarazten eta sentsibilizatzen egin beharreko lana, bai boluntarioentzat, bai haien jatorrizko gizarteentzat, bai hura hartuko duten gizarte eta pertsonentzat. Boluntario-programa askotan ezinbesteko helburua izaten da kontzientzia harraraztearena eta sentsibilizazioarena, baina elkarreentzat zaila izaten da helburu hori lortu ote duten argi jakitea, ez baitute horretarako adierazlerik aurkitzen. Batzuetan, hori ebaluatzeko modua boluntarioak etxera itzultzean bidaltze-elkarteen dinamiketan lanean hasi ote diren ikustea izaten da; baina normalean alderdi hori programaren helburu izaten ez denez, ez da aintzakotzat hartzen, edo haren eragina neurtzeko adierazlerik ez dago. Hala ere, hori ez da esperientziak izandako eraginak ebaluatzeko modu bakarra; Hegoaldean, jatorrizko komunitatean eta boluntarioaren bizitzan esperientzia horrek izandako eragina ebaluatu beharko litzateke.

Boluntarioen kultura-arteko gaitasunetan izan diren aldaketak hizpide hartuta **ALBOAN**ek nazioarteko boluntariotzari buruz egindako ikerketa batek erakusten

duenez⁴, beste errealitate eta kulturen ezagutzan eta aniztasuna aintzakotzat hartzean gertatu ohi dira, batez ere, aldaketa nagusiak. Jarrerak eta gaitasunak aldatu ote diren jakitea, ordea, askoz zailagoa da, baita boluntarioentzat ere; horixe ikus daiteke 2. grafikoan.



1. taula: Gaitasunen eboluzioa

		Media	Desbideratze tipikoa
Ezagutzak	Gero	3,64	0,65
	Lehen	2,06	0,50
Jarrerak	Gero	4,17	0,46
	Lehen	3,15	0,78
Gaitasunak	Gero	3,89	0,59
	Lehen	2,77	0,71
Kontzientzia	Gero	4,10	0,55
	Lehen	2,65	0,64

⁴ Ikerketa hori hemen dago eskuragarri: www.alboan.org/portal/documentos.asp?id=73 ALBOANeko bulegoetan eska daiteke, bai eta www.alboan.org webgunean ere.

Harrera-elkartek

Boluntarioak hartzen dituzten elkarteek hainbat arrazoi direla tarteko jokatzen dute horrela: haiek ekar dezaketen berritasunagatik, elkarteari beste ikuspegi batetik begiratzen diotelako, kultura-artekotasunari egiten dizkioten ekarpenengatik, jarrera solidario gisa inguruko pertsonentzat funtsezko erreferentziak direlako eta lan garrantzitsua egin dezaketelako.

Kultura-arteko elkarrizketari eta bizikidetzari dagokienez, apustu horrek zailtasun ugari ditu, baina komunitatearentzat onura dakarrela pentsatzen da. Esperientziak oinarritzat harturik, zailtasunen arrazoiak hauek dira: (1) boluntarioek jokorauak onartu ez, eta elkartea zalantzan jartzea; (2) lana kolokan jartzen duten edo baldintza dezaketen mendekotasunezko harremanak sortzea; (3) boluntarioa sobera politizatuta egotea edo haren agerpen publikoak gehiegizkoak izatea; edo (4) egin beharreko lana pertsonaren gaitasunekin edo espero duenarekin bat ez etortzea. Bi parteek hala adostuta, batzuetan esperientzia uste baino lehen amaitzen da.

Hala eta guztiz ere, kasu gehienetan esperientziaren amaierako balorazioa ona izaten da. Halaber, gure ustez, gatazkek eta konpondutako arazoek ikasten jarraitzeko balio digute, bai inplikaturako pertsoneri, bai elkarteei. Era berean, bidaltze- eta harrera-elkarteen arteko eztabaidei eta adostasunei esker, bi erakunde horiek bat egin dezakete, edo punturen batean ados ez daudela ohar daitezke; horrek guztiak beren arteko harremanean sakontzeko balioko die.

Azken urteetan gertatu den aldaketetako bat hauxe da: bidaltze- eta harrera-elkarreak profesionalizatuz joan direla. Horren ondorioz, gero eta profil zehatzagoak eskatzen zaizkie boluntarioei, eta eskatzen zaizkien jarduera gehienetarako bulegoko lana ezinbestekoa izaten da. Gehitu horri adinean gora egin dutela boluntarioek, eta, beraz, ibilbide profesional luzeagoa izaten dutela; horrenbestez, esan liteke boluntarioen esperientzien eta kooperanteen lanaren artean ez dagoela horrenbesteko alderik; bion arteko alde nagusia lan-baldintzak eta estatusa dira. Hain zuzen, horrexek piztu ditu atzera ere eztabaida eta “fantasma” guztiak; izan ere, ez ote dira izango boluntarioak eskulan merkea baizik? Zaila da bi esperientzien arteko muga-marra finkatzea. Elkarte askoren iritziz, boluntariotzaren ezaugarri nagusia komunitateekin harreman eta lotura zuzena izatean eta haiekin batera soiltasun hutsenean bitzean datza. Hori gertatzea elkarteetan eta boluntarioen esku dago, ez hainbeste gero egingo dituzten jarduera eta lanen mende.

GAUZAK GUK USTE BEZALA EZ DIRENEAN

Orain arte, hiru aldeak boluntariotzan inplikatzera eramaten dituzten bultzadak eta motibazioak aipatu ditugu; baina lan horrek ikasteko eta norberaren burua hobetzeko eta aberasteko balioko badu, ezinbestekoa da zenbait arazori eta gatazkari aurre egitea. Arazo eta gatazka horiek alde guztiei komeni zaien moduan gainditzen diren heinean, bilatzen genuen esperientzia izatea lortuko dugu.

Boluntarioentzat beharrezkoa da zailtasunei ahalik eta modurik onenean aurre egiten jakitea, eta ezinbestekoa da tartean diren elkarteek ere ahalegintzea prozesu horretan laguntzen.

Iraupen luzeko edo laburreko esperientziak izan, bizipenen indarra ere aldatuz joaten da; baina, edonola ere, sarritan zailtasun hauek topatzen ditugu denenetan:

- **Frustrazioak gobernatu.** Begien bistan dugun errealitatearen aurrean, jendearen, erakundeen, komunitatearen eta herrialdearen beraren errealitatean aldatketak eragiteko zailtasunen aurrean, frustrazioak sortzen dira. Frustrazioa, segurtasun-neurriengatik, lekuan lekuko prozesuei zor zaien begiruneagatik eta beste hainbat arrazoiengatik egin nahi genituzkeen gauza asko egin ezin ditugulako. Frustrazioa, kulturaren eta gizarte-prozesuen baitako logika ulertzen ez dugulako. Hala ere -hemen aipatuko ditugun zailtasun guztiekin halaxe gertatzen da-, arazoari nola begiratzen zaion, halakoxea da hark sortzen digun kezka. Eta, sarri askotan, esperientziaren une jakin batean izugarri irizten genion zerbait, gero kultura edo komunitate horren balioetat jotzen dugu. Nolanahi ere, prest egon behar dugu aurrean izango ditugun frustrazioak onartzeko.

Emakumezko boluntarioentzat batez ere, beste kultura batzuetan aurki daitezkeen generoari buruzko ikuskerek frustrazioa eragin dezakete. Aurrerago itzuliko gara alderdi horretara. Hala ere, kasu gehienetan, frustraziook guggandik gertu jazotzen dira, geure jatorrizko gizartean bertan; baina, jakina, geure ingurunean erraz ulertzen ditugu joko-arauak, eta boluntariotzan dihardugunean, aldiz, dena bihurtzen da ezezagun eta, beraz, ulertzen zailago. Denborak aurrera egin ahala, zailtasun bakoitza dagokion testuinguruan ulertu, eta egiaz duten garrantzia emango diegu; era berean, haiek konponzen hasi, eta garbi ulertuko dugu (1) zer dagoen geure esku; (2) zertan eragin dezakegun, zeharka bada ere; eta (3) zer ezin dugun konpondu, horretarako garaia iritsi ez delako.

- **Ezinbestez, malgutasunez jokatu.** Boluntariotzan argi eta garbi antzematen dugu zer desberdintasun dauden kultura eta testuinguru batzuetatik beste batzuetara. Dena kontrolpean izan dezakegula eta geure buruaren jabe gara la pentsatzea nagusi den kultura bateko pertsonok zailtasun ugari izaten ditugu beste errealitate eta kultura batzuetako logika ulertzeko. Zailtasun horiek gertatzen dira gehienbat aurkitzen garen errealitate berrian, egunero baliatzen ditugun oinarritzko zerbitzuek eta baliabideek ez dituztelako guk nahi adinako arintasun, azkartasun eta egiturarik. Bestalde, zenbait kulturatan, patuak, jainko-jainkosek eta eguraldiak sekulako garrantzia izaten dute, aurrez egindako planak aldatzerainokoa. Eta geure moduko burugogorrontzat, hori guztia kudeatzea ez da batere erraza.

Beraz, beharrezkoa da gure begirada zabaltzea, eta gure planetan, kontzeptuetan, mundu-ikuskeretan, harremanei buruzko gure pentsamoldeetan malgutasunez jokatzeko, eta beste logika batzuk ulertzeko prest egotea. Gehiengehienetan, ikuskera horien guztien erdibidean egoten da bertutea. Ezinezkoa da den-dena kontrolpean izatea; baina horrek ez du esan nahi dena patuaren mende utzi behar dugunik. Zer muga ditugun jakitea ona da; baina, aldi berean, errealitatea aldatzeko ahal dugun guztia -gure esku dagoen guztia- egiten saiatu behar dugu.

- **Kulturen arteko talka**⁵. Ikerketa askok diotenez, esperientzian zehar -luze ala labur iraun, berdin dio- gorabehera ugari izaten dira, aurkitu berri dugun

⁵ Kultur-artekotasunaren gaia sakonago dokumentu honetan lantzen da: Kulturartekotasuna, multikulturalismoa, boluntarioentzako erronka. Hezkuntza baliabideak 27.

kultura eta testuinguruarekiko ikuskerei dagokienez. Lehen une batean, kultura berri horretaz maitemindu egiten gara: dena iruditzen zaigu erakargarri eta interesgarri; dena da kontatzeko modukoa; dena, argazki-kamerek jasotzeko modukoa. Hala ere, lehen une horrek ez du asko irauten; izan ere, halako batean, errealtate berrian sakondu eta hura ezagutzen hasten gara. Orduan, irudimenean atsegin genuenak desengainatu egiten gaitu; kultura eta testuinguru horren alde txarrak eta mugak baino ez ditugu ikusten. Maitemingoeratik desengainura igaro eta gero, pertsonak, oro har, askoz jarrera orekatuagoa izaten dute kultura horri dagokionez; haren alde onak kontuan hartzen dituzte, aberasgarri gerta daitezkeelakoan, eta ohartzen dira ere zein diren baztertzeko modukoak edo komeni ez zaizkienak. Bitxia da, hala ere, prozesu horixe bera errepikatzen dela boluntarioa bere jatorrizko kulturara itzultzen denean.

Batzuetan -joatean ala itzultzean-, aski izaten da aipatutako maitemin-egoera hori gertatzeko, leku batera joateko ametsa izan eta hara iristean, lekuak gu zapuztea. Egokia izan liteke mugimendu pendular hori aurrez igartzea, eta, alde aurretik zer gertatuko den jakinda, haren eragina arintzea. Era berean, interesgarria da jakitea kultura batetik zerk erakartzen gaituen eta zerk ez, eta argi ikustea zer gorde nahi dugun hartatik, kultura-arteke esperientzia horrek aberats gaitzan. Ez dago kultura perfekturik, denek baitituzte mugak eta potentzialtasunak; horregatik, esperientzia hori geure bizitza aberastera datorren une gisa bizi behar dugu, eta horretarako, ezinbestekoa da gure kultura-paradigma batzuk aldatzea. Ez da erraza izaten, denbora asko behar izaten baita horretaz jabetzeko; hainbeste, egitera goazen esperientzia hori ez baita urratu beharreko bidean emango dugun lehenengo urratsa besterik.

- **Espiritualtasuna eta erlijiozkotasuna.** Aurkituko ditugun errealtateetan, bi alderdi horiek nonahi aurkituko ditugu, sekulako garrantzia baitute. Askotan, haien garrantzia ez da esparru pribatura mugatzen, esparru publikoan ere funtsezkoak baitira. Mendebaldeko kulturaren ohikoa izaten da bizitza esparru ugarian banatzea; beste kultura-tradizio batzuetan, aldiz, argi ikusten dugu bizitzari eta errealtateari buruzko ikuskera holistikoagoa dutela eta, ikuskera horietan, espiritualtasuna eta erlijiozkotasuna ezinbestekoak direla. Horren ondorioz, batzuetan zail gertatuko zaigu errealtate horiek ulertzea, bai eta toki horietako komunitateetan bertako jendearekin bizitzea. Beste alde batetik, fede berbera izaten dugun arren, zenbaitetan haien eta gure erlijiozkotasuna zeharo desberdina izaten da; sarritan, bizipen horiek ulertzea eta konpartitzea izugarri kostatzen zaigu.

Oro har, pertsona bakoitzaren bizitzan espiritualtasunaren eta transzendentziaren bizipenak guztiz funtsezkoak dira, eta beharrezkoa da haiek errespetatzea. Mundu-ikuskeran, espiritualtasun eta erlijiozkotasun desberdinei dagokienez, beharrezkoa da, konplexua ere baden arren, haiekiko jarrera irekia agertzea; are gehiago, guk ere prest egon beharko genuke gure barruari begiratu, eta transzendentzian sakontzeko.

- **Denboraz jabetzea.** Denboraren neurketa objektiboa izan daitekeen arren, denok sentitu izan dugu segundo batzuek beste batzuek baino gehiago irauten dutela; ordu batzuek beste batzuek baino probetxu handiagoa izaten dutela; hilabeteak adina luzatzen direla zenbait aste; eta beste aste batzuek, berriz, egunak diruditela. Beraz, denok sentitu izan dugu denborak baduela alderdi subjektibo bat ere, hura bizitzeko gure moduaren araberakoa. Boluntariorzak irauten duen denbora-tartean, lehenengo egunetan edo hasierako hiletan denbora mantso samar igarotzen dela hautemango dugu, geuk ere egiteko zeregin gutxi dauzkagulako; eguneroko dinamikei ekiten diegunean, ordea, denbora askoz azkarrago igarotzen dela hautemango dugu. Denbora-tarte baten buruan, hilabeteak edo urteak “ia” oharkabean joan zaizkigula irudituko zaigu. Beste alde batetik, gure esperientzia kokatzen den komunitateetan, denbora orain huts-hutsa izaten da. Izan ere, ez dute izaten etorkizuna bizitzeko batere presarik, eta ez du orainean gurean duen presentzia. Horrek estutu egiten gaitu zenbaitetan. Zenbait komunitateren erlojuarekiko mendekotasunik eza ikasi beharreko zerbait izan beharko luke guretzat; baina, egia da, halaber, gatazka-, tentsio- eta frustrazio-iturri ere badela. Hori kudeatzen ikasi behar dugu.
- **Egin beharreko lanak.** Biziko dugun esperientziaz ohar gaitezen, modu egokia izan liteke aurrez beste pertsona batzuei gure xede den herrialdeaz, tesuinguruaz eta egingo dugun lanaz zenbait xehetasun azaltzeko gauza izatea. Hasieran, egin beharreko lanak dira gure helduleku zehatz bakarrak; gure boluntariorza egingo dugun lekura iritsi aurretik hari buruzko zenbait datu estatistiko baizik ezagutzen ez ditugunez, egin beharreko lana da ulertzen dugun gauza bakarra, eta hari buruz baino ezin diegu besteei hitz egin. Esperientzian murgiltzen garenean ere, kultura ezagutu eta bertako jendearekin harremanak egin arte, egin beharreko lanak soilik ematen dio zentzua gure esperientziari. Hala ere, lan horri dagokionez, askotan ez gara ohartzen bi arazo sor daitezkeela: batetik, desberdintasun kulturalak direla tarteko, gauzak egiteko, ulertzeko eta definitzeko moduan talkak egotea; eta bestetik, hasieran

proposatutako lanetan aldaketak egotea. Boluntariotzari dagozkion aldaketa eta interpretazio horiek kolokan jar ditzakete gure iritziak, egin beharreko lana baitzen “ziur” antzean genekien gauza bakarra, eta, gainera, hura zen -lana, alegia- guk egin beharreko ekarpen nagusia. Berriro ere, komeni da prest egotea egin beharreko lanari buruzko interpretazio ugariak ulertzeko; zeregin horiek edozein unetan guztiz aldatzea ere gerta liteke, eta hori ere onartu beharra dago, baldin eta horrek eragozpenik ez badakar gure berriazko lana behar bezala egiteko -horretarakoxe prestatu baikaituzte-.

- **Emaitzak garrantzitsuak dira.** Aurreko ataltxoan esandakoari estu-estu lotuta, gehienetan kausa bati efektu batek segitzen diola ulertzeko hezi gaituzte; baina, zenbaitetan, kultura batzuetatik beste batzuetara aldeak egoten dira. Beste leku batzuetan, testuinguruak (eguraldiak, garraiobideek, hedabideek...) eragin nabarmena izan dezake kausa eta efektua segidan. Beste alde batetik, izango ditugun harremanak eta biziko ditugun gizarte-prozesuak ez dira beti segida horren ondorio izaten. Eta, horren guztiaren berri izan dezakegun arren, gure subkontzientzian kausa-efektu segida horrek sekulako eragina izaten du (hau egiten badut, beste hori gertatzea espero dut); horregatik, hain zuzen, errealitate zehatzenetan zerbait egiten dugunean, ondorioak ikusi nahi izaten ditugu.

Iraupen laburreko esperientzietan, zaila dela badakigun arren, gure egonaldia aldaketa erabakigarriak eragitea bilatzen dugu. Gudan ikusiko ditugu agian aldaketa erabakigarri horiek, baina errealitatean ere hauteman nahi izaten ditugu. Dena dela, gizarte-prozesuetan aldaketak oso poliki gertatzen dira, pixkanaka-pixkanaka. Eta, gainerako gizarte-prozesuetan gertatzen den moduan, aurrez batere esperientziarik gabekoak izateak eta ia egun osoa boluntariotzan emateak gure itxaropenak areagotu besterik ez dute egiten; gure ekintzek gauzak aldatzea espero izaten dugu. Hala ere, hori guztia gure “inbertsio” bat izaten da, nahiz eta baldintzarik egon ez emaitza nabarmen eta azkarrik lortzeko.

- **Bide-laguntza prozesua**⁶. *Coaching, mentoring* eta antzeko ekintza guztiak boladan daude gaur egun lantoki askotan. Espiritualtasun-tradizio ugarian, bide-laguntza ohiko metodologia izan da; hala ere, boluntariotzara hurbiltzen

⁶ Aipatu gai hori sakonago aztertzen duen dokumentua: Bide-laguntza nazioarteko boluntariotza esperientzietan. Hezkuntza baliabideak 29.

diren pertsona askok ez dute modu horretako esperientziarik izan. Esperientzia gisa pertsona horiek izan duten antzekoena tratamendu psikologikoa izan da. Baina bide-laguntzak ez dauka horrekin zerikusirik. Beste alde batetik, gure lan-erritmoen eta dinamiken ondorioz, beste pertsoneri bide-laguntza eskaintzeko kalitatezko denbora-tarterik ez dugula sentitzen dugu.

Horixe da, hain zuzen, boluntarioen bide-laguntza prozesuetan topatzen dugun zailtasun nagusia: batzuetan, nola lagundu ez jakitea, eta beste batzuetan, horretarako astirik ez aurkitzea. Boluntariotzan bide-laguntza prozesua funtsezkoa da, gertatzen ari zaigunaz hitz egiteko aukera ematen baitigu, bizi duguna alderatzekoa, hori guztia nola interpretatzen dugun jakitekoa; eta hori guztia oso garrantzitsua da gure esperientzian eta kulturei buruzko gure interpretazioetan orientatzeko. Horretarako, funtsezkoa da laguntzailearen eta lagunduaeren artean konfiantzazko harremana sortzea, bai eta konpartitzeko eta entzuteko gaitasuna garatzea ere.

Landu beharreko zerbait da, espazio egokiak sortu behar dira, bai eta konfiantza ere, zalantza-uneetan eta unerik zailenetan laguntza horrek gure esperientzia erraz dezan. Normalean, harrera-elkarteak gure esperientziari aurre egiteko pertsona laguntzaile baten babes ematen digu. Egokia izan liteke pertsona horrekin gogor saiatzea, baina bien artean “kimikarik” ez dagoela ikusiz gero, hobe da gure beharrei egokiago erantzungo dien beste pertsona baten laguntza bilatzea. Laguntzaile baten bila ari garela, gogoan hartu behar-ko genuke pertsona horren sexua, ez baita gauza bera, bizipenei dagokienez, hura gizona ala emakumea izatea. Laguntzailearen jatorriak ere lagun dezake; izan ere, hura nongoa den, errazagoa izan liteke bion arteko hurbiltasuna, konfiantza eta ulermena lortzea. Nolanahi ere, beti da ona laguntzaile bat alboan edukitzea eta, askotan gainera, beharrezkoa izaten da pertsona bakoitzarentzat laguntza-dinamika sortzea. Sarritan, laguntzaileak beste noizbait egindako dinamiketan eta esperientzietan oinarritzen dira, baina pertsona bakoitza desberdina denez, haien premiak ere desberdinak izaten dira; beraz, komeni da boluntarioek kontzientzia hartu eta beren premien berri laguntzaileei ematea. Laguntzarik ez izatearen ondorioz, gerta liteke garrantzi handiegirik gabeko arazoak buruan jira eta buelta ibiltzea, gaizkiulertuek eragin gaiztoa izatea gudan... Horrek guztiak erraz konpon litezkeen gatazkak, frustrazioak eta eragozpenak eragin ditzake.

- **Bakardadea.** Guztiz beharrezkoa da esperientzian zehar bakarrik egoteko asitia eta guneak topatzea. Izan ere, une horiek kontzientzia harrarazten digute

bizi dugun esperentziaz, hura dastatzen laguntzen digute, ekintzaz eta harremanetaz atsedean hartzeko eta geure buruarekin egoteko balio digute. Gertatzen da batzuetan bakardadean igarotako denborak klabe positiboan bizitzen ditugula eta bestetan negatiboan. Nolanahi ere, zenbaitetan bakarrik egotea bilatzen badugu ere, beste batzuetan bakardadeak gutxien komeni zaigunean harrapatzen gaitu. Edozein moduz, komeni da garbi edukitzea noiz edo noiz halako bakardade bat biziko dugula. Bakardade hori guk bilatu gabekoa denean, gure baliabideak martxan jarri beharko ditugu, gehien gustatzen zaiguna egiteko. Beste aukera bat ere badago: bakardadeaz lasai-lasai gozatzeta, harremanez jositako beste une asko etorriko direla jakinda. Ezin da ahaztu, baina, badagoela bakardade-mota bat zaindu beharrekoa, guztiz beharrezko baitzaigu atsedean hartu eta gure beharrez, aldaketez eta eginbeharrez jabetzeko. Esperientzian aurrera egin ahala, bakardade-mota hori topatzea gero eta zailagoa izango da, baina, aldi berean, baita gero eta beharrezkoagoa ere.

- **Hango eta hemengo pertsonen arteko komunikazioa.** Gure esperientziaren hasieran, hain modu bortitzean bizitzen ari garena konpartitu nahi izaten dugu gure herrian utzitako pertsonekin. Izan ere, une horretan izaten dugu denbora libre gehien. Gero, esperientzia bete-betean bizi dugunean, denbora eta arreta erabatekoak behar izaten dira, eta horrek gertatzen ari zaigunaz pentsatzeko eta besteei kontatzeko denbora kentzen digu. Eta, luzaroan ezer kontatzeke egon garenez, jendea ez da gai izango esaten dizkiegun zenbait gauza ulertzeko, horretarako hasiera-hasieratik hasi beharko baikenuke gure esperientzia kontatzen. Hala ere, gertu nahiz urruti dauden pertsonen gure esperientziaren berri ematea, bizi eta sentitzen dugun guztiaren berri ematea funtsezkoa da, esperientziaren aurretik, esperientziak irauten duen denborartean eta esperientziaren ostean haien laguntza izan dezagun.

Boluntarioarentzat oso garrantzitsua da bizi duenaz kontzientzia hartzea eta hori guztia adieraztea. Beraz, besteekin hitz egiteak nork bere buruarekin hitz egiten laguntzen du. Horretarako, hainbat baliabide daude: egunerokoak -gaur egun, blogak gailendu zaizkie-, aldi behin postaz berriak bidaltzea, taldekako txata, aldizkako topaketak eta abar. Baliabide horiek guztiek gure esperientziaren berri ematen lagun diezagukete. Gorago esan dugunez, boluntarioarentzat funtsezkoa izateaz gain, inguruko jendearentzat ere garrantzitsua da, esperientziaren berri jakiteko. Pertsonen arteko komunikazio hori egokia bada, boluntarioa etxera itzuli, eta bertara egokitzen lagunduko dio; ezagutu duen errealitatearen berri emateko ere balioko dio.

- **Aisialdirako guneak.** Pertsona gisa errealizatzeko, aisialdia gune pribilegiatua da. Hala ere, pertsona guztiak ezin dute pribilegio horretaz gozatu. Dena dela, gu ohituta gaude aisialdiaz gozatzera, eta zaletasun, interes eta ardura ugari izaten ditugu. Horregatik, boluntariotzak irauten duen denbora-tartean -batez ere, iraupen luzeko esperientzietan-, ona da aisialdirako tarteren bat izatea. Izan ere, eguneroko zereginak ahaztea komeni zaigu; beste zaletasun batzuk dituzten pertsonak ezagutzeko ere balio digu. Horrez gain, egunei beste ikuspuntu batetik begiratzeko ere ezin hobea da. Batzuetan, egia da, gauden lekuan egonda, zaila dela aisialdi-guneetara joatea; baina, halakoetan, guk geuk sor ditzakegu gune horiek. Kontua da nork bere buruari denbora-tarte bat oparitzea.
- **Afektuzko harremanak.** Horien bidez, erabateko gozamina lor dezakegu, eta bizi-bizi sufritu ere bai; era berean, beste pertsona batzuei ere gozamina, frustrazioa nahiz sufrimendua eragin diezaiekegu. Nolanahi ere, afektuzko harremanak izatea guztiz beharrezko zaigu. Boluntariotzan gabiltzala, babesik gabe gaudela pentsa dezakegu hasiera batean, gertuko inor alboan ez dugulako. Gure hutsuneak beteko dituzten pertsonak bilatzea izaten da halakoetan akatsa. Hori bide egokia izan liteke, baina argi eduki behar da harremanak bi pertsonen edo gehiagoren arteko zerbait direla eta, beraz, ondo jakin beharra dagoela beste pertsona horiek zeren bila ari diren. Era berean, oso gogoan hartu behar da gu baino lehen boluntariotzan ibilitako pertsonak zer-nolako esperientziak bizi izan zituzten. Kasuistika oso zabala da: (1) gerta liteke beste boluntario batzuekin mendekotasuneko harremanak izan dituzten pertsonak egotea; (2) boluntarioek familia bati aurrera egiten lagundu izan dieten esperientziak egon litezke, eta gerta liteke, halaber, baten bati iruzur egin izan dion boluntarioen bat egotea; (3) era berean, gerta liteke hango pertsonak boluntarioa ia seme edo alaba bat balitz bezala hartu izana; edo (4) errealitate hartatik ateratzen lagunduko dien norbaiten gisan baliatu izana. Beraz, guztiz beharrezkoa da, ahal den neurrian, harreman horiek guztiak zertan diren jakitea; harreman horiek zer interes eta zer eragin izan ditzaketan hausnartzea. Hori guztia argi badugu, bilatzen ez duguna baztertu, eta adiskidetasun berri horiez gozatu ahal izango dugu. Adiskidetasunok, gainera, betiko iraun dezakete. Gainera egunen batean handik alde egingo dugula eta, ez diogu geure buruari trabarik jarriko; aitzitik, egun hori iritsiko dela garbi jakinda ere, harreman horiez bete-bete gozatuko dugu.

- **Genero-desberdintasunak.** Badakigu genero-eraikuntzak kulturalak direla eta, beraz, haietan aldaketak eragin ditzakegula. Gure testuinguruan, berdintasunaren aldeko borrokei esker, urrats handiak eman dira gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna lortzeko, nahiz eta oraindik ez dugun egiazko berdintasunik erdietsi. Beste zenbait leku eta testuingurutan, berriz, geurean izandakoen aldean, aurrerapauso nahiz atzerakada gutxi-asko garrantzitsuak izan zitezkeen; agian, zenbait lekutan ez da halakorik izan. Horrek, jakina, gizonei eta emakumeei, bi-biei eragiten die. Dena dela, emakumeak dira oro har aldaketa eta desberdintasun horiek nabarmenen sentitzen dituztenak, diskriminazio-egoerak haiek pairatu behar izaten dituzte eta. Horregatik, hain zuzen, boluntarioak zehatz-mehatz jakin behar du zer-nolako kultura-kodeak diren nagusi bere esperientzia bizi duen lekuan. Emakumeen askatasuna eta aurrera egiteko aukerak mugatzen dituzten ikuskerak argitzeko gaitasuna izan behar du boluntarioak; eta, hala egokitzen denean, gizonei nahiz emakumeei lagundu behar die beren kultura-ereduak aldatzen. Ez da ahaztu behar denak gaudela inplikaturatu prozesu horretan; izan ere, eguneroko borroka horretan, inor ez da bizi kultura-testuinguru jakin batetik kanpo. Hala ere, zenbait aldaketa guk nahi baino mantsoago gertatzen direla ikusita, litekeena da zenbait tek frustrazioa sentitzea.

JOAN-ETORRIKO BIDEAN BARRENA GOAZELA, IRUDIPENAK, ITXAROPENAK ETA MOTIBAZIOAK ERREALITATE JAKIN BATEAN UZTARTZEN

Zenbait gida-lerro boluntarioentzat

Orain arte, gure esperientzian zehar gogoan hartu behar ditugun zenbait alderdi aipatu ditugu. Alderdiok zenbait aldaketaren berri eman digute: gudan gertatutako aldaketak, lanean dihardugun ingurunean bizi diren pertsonengan gertatutakoak, eta testuinguruan bertan gertatutakoak. Horrek guztiak gertatzen ari denaren jabe egin behar gaitu; era berean, zenbait jarrera eta balio garatu beharko ditugu, aldaketa horietara moldatzeko, baina nortasunik galdu gabe eta gure lanaren helburuak zein ziren gogoan hartuta.

Oso gogoan izan behar dugu gure esperientzian zehar aldaketa ugari izango direla, bai gure motibazioetan, bai bidaltze-elkartearen motibazioetan. Bi kasuetan, izan ere, motibazioak umotuz joaten dira. Kontuz ibili behar dugu, hala ere, aldaketa horien ondorioz begien bistatik gal baititzakegu gure lanaren funtsa bera eta boluntariotzari ekin genionean genituen lehentasunak; halakoetan, litekeena da aldaketa horiek hain onak ez izatea; agian, orduantxe eman beharko genuke bukatutzat esperientzia eta beste bati ekin beharko genioke.

Aldaketa horiei eta bidean agertuko diren zailtasunei aurre egiteko, beharrezkoa da zenbait gaitasun eta jarrera izatea; hau da, aldaketak onartzeko prest egotea, bakardadea eta pertsonen arteko harremanak kudeatzen jakitea, enpatiaz jokatzeta eta aurreiritziak alde batera uztea.

Boluntario garen aldetik, komeni da argi eta garbi jakitea zer-nolako intentsitatez bizi dugun gure eguneroko lana; baina, aldi berean, gogoan izan behar dugu gure

lankideek guztiz bestela senti eta bizi dezaketela intentsitate hori. Beraz, gogoan hartu gure presentzia erlatibizatzea ona dela; gure lanari esker egingo dugun ekarpenari dagokionez, umil jokatu behar dugu. Gure esperientziak emandakotik ahalik eta gehiena ikasi behar dugu eta hartaz gozatu, ahal den neurrian.

Orobat, gogoan hartu behar dugu zenbait unetan bakarrik sentituko garela. Zenbaitetan, bilatu gabeko bakardadea izango da; halakoetan, gure baliabideak erabili beharko ditugu, gustatzen zaiguna egiteko eta bakardadea lasaitasunez haritzen ikasteko, harremanez jositako denbora-tarteak ere etorriko direla jakinda. Ezin da ahaztu, baina, badagoela bakardade-mota bat zaindu beharrekoa, guztiz beharrezko baitzaigu atseden hartu eta gure beharrez, aldaketez eta eginbeharrez jabetzeko.

Azkenik, boluntariora pertsonaren bizitzako esperientzia gisa hartu behar dugu, nahiz eta ez den, inondik ere, edozein gisako esperientzia. Pertsona gehienek, beren kezkei erantzuteko, aldaketak eta beren burua aberastea bilatzen dute, bidean ikasitakoa eta bizi izandakoa oinarritzat harturik. Esperientzia horren ostean, bizipen horiek gure bizitzan -hau da, gure bizitzako esparru profesional, sozial eta pertsonalean- txertatzeko gauza izan behar dugu.

Zenbait gida-lerro bidaltze-elkarteentzat

Esperientzia hasi baino lehenagoko eta bukatu osteko faseetan, bidaltze-elkarteek funtsezko zeregina izaten dute. Esperientziak irauten duen denbora-tartean ere bide-laguntza eskaintzen die boluntarioei, baina distantziak nabarmen zailtzen du harremana. Horregatik, esperientzia hasi baino lehenagoko eta bukatu osteko faseetarako gida-lerroak aipatuko ditugu hemen.

Esperientzia hasi baino lehen, arreta berezia jarri behar da boluntarioen prestakuntzan, bai eta hori errazten duten pertsonen prestakuntzan ere. Zentzu horretan, komeni da prestakuntza-programak eguneratzea, boluntarioek barru-barrutik biziko dituzten errealitateetara egokitzea eta haietako bakoitzaren premietara moldatzea. Prestakuntzak taldekakoa izan behar du, baina, horrekin batera, boluntario bakoitzari saio eta bide-laguntza pertsonala emango zaio. Era berean, esperientzia behar bezala prestatzeko lanabesak behar dira. Esan beharra dago, hala ere, ez dagoela guztiz aurreikusterik esperientzian zehar gertatuko den guztia. Nolanahi ere, hura kudeatzen lagunduko diguten zenbait lan-tresna eskura izango ditugu.

Gaur egun, zenbait berritasun daude boluntarioen esperientziei eta lekuei dago-kienez; beraz, aurrez ikasi beharreko gaiak eta eskuratu beharreko gaitasunak ere bereziak izango dira. Bi motatako berritasunak daude: batetik, orain arte gure lankidetzan ezagutzen ez zuten esparru geografikoetan -Afrikan eta Asian, batez ere- lanean hasi izana; eta bestetik, lan-sektore zehatz eta berezi-tuetan lanean hasi izana (herritarren parte-hartzea eta deszentralizazioa, natura-baliabideen kudeaketa, lekuan lekuko garapena eta abar).

Bidaltze-elkarteek, orobat, behar bezala jakin behar dute boluntariorik parte hartzea doan pertsonak zer profil eta motibazio dituen; eta, era berean, harrera-elkarteek zer boluntario-mota bilatzen duten ere oso gogoan hartu behar du.

Komeni da, orobat, erreferentziazko pertsona bat izatea; pertsona hori boluntarioekin egongo da bai prestakuntza-garaian, bere egonaldiak irauten duen denbora-tartean eta etxera itzuli eta gero. Boluntarioa itzultzean, talde-lana eta bide-laguntza pertsonalizatua bateratuko bagenitu, askoz hobeto egingo genieke aurre pertsona gehienek kezkei eta ardurei. Esperientzia bukatzen duela eta, boluntarioari bide-laguntza erraztu behar zaio hura guztiz amaitzen eta esperientzia berriei ekiteko urratsak ematen.

ALBOANen esperientziari dagokionez, boluntarioak eta harrera-elkarteak esperientzia ebalua dezaten bultzatzen da, eta gero, tartean inplikaturik dauden alde guztiei beren esperientzia alderatzeko eskatzen zaie. Iraupen luzeko esperientziei dagokienez, ebaluazioak esperientziaren erdialdean -beharrezko aldaketak garaiz egiteko- eta amaieran egiten dira. Ebaluazio horiei esker, boluntarioengan izandako aldaketa-prozesuak identifikatzen eta ikertzen ditugu eta boluntarioak etxera itzultzen direneko bide-laguntzarako ere balio digute.

Zenbait gida-lerro harrera-elkarteentzat

Harrera-elkarteek bi alderdi hauek definitu behar dituzte zehatz-mehatz: batetik, boluntarioek egin beharreko lana zehaztea; eta bestetik, boluntarioei ostaturik eta mantenua ematea -oso garrantzitsua, esperientzia ondo joango bada. Bestalde, erreferentziazko pertsona bat ere izendatu behar dute, bide-laguntzaile-lana egiteko zeregina ez badu ere, esperientziak zer garapen-maila duen jakiteaz behintzat arduratu behar duena; izan ere, pertsona hori arduratuko da boluntarioa aurkezteaz eta lekuan lekuko kultura-dinamiken berri emateaz. Pertsona horrek, gainera, esperientziaren jarraipena egin behar du; hau da, boluntarioaren eta

harrera-elkarteko boluntariotzaren arduradunaren artean zailtasunak identifika-tu eta konpondu behar dituzte. Azkenik, boluntarioak laguntza jasotzen duela bermatu behar du.

Komeni da harrera-elkartek argi jakitea zer-nolako aldaketak izaten dituzten es-perimentzian inplikaturik dauden eragile guztiek. Beren elkartekideekin ere lan egin behar dute, boluntarioak zer ekarpen egin behar duen jakiteko, eta elkarrengan-dik zer espero duten zehazteko. Alde horretatik, komeni da nazioarteko bolunta-rioek elkarte eta komunitate horietan izan beharreko garrantziaz pertsona ba-koitzak dituen irudipenak behar bezala taxutzea.

Harrera- eta bidaltze-elkartek etengabeko harremana izan behar dute, unean-unean esperientzia zertan den balioesteko. Aldi berean, bidaltze-elkartarekin bat eginik, harrera-elkartek lekuan bertan bermatu behar du esperientzia bu-katu dela eta boluntarioa etxera itzuliko dela. Bere jatorrizko lekura itzultzean, boluntariotza amaiturik, lan hori gaingitzen dituzten alternatibak azter litezke etorkizunerako.

Ondorio modura

NAZIOARTEKO BOLUNTARIOTZA: ERRONKAK ETA PREMIAK

Argitalpen honen hasieran esaten genuen moduan, gizarte-mota jakin baten alde egiten dugu apustu, eta boluntariotza, esperientzia horretan inplikaturik dauden alde guztientzat, apustu horren gauzatze zehatza besterik ez da. Esperientzia horietan, pertsonak daude ernamuinean: kanpora joaten direnak, bide-laguntza eskaintzen dietenak eta esperientzia posible egiten dutenak eta han bertan hartzen dituztenak. Esperientzia horretan, gainera, ekonomia ez da giltzarria, elkartasuna baizik. Komunitatearen hazkundera eta justizia soziala bilatzea helburu duen esperientzia dugu boluntariotza. Eta kulturen, mundu-ikuskeren eta sinesmenen arteko elkarrizketa martxan jartzen duen esperientzia ere bai, helburu zehatz bat duena: mundu zuzenago eta duinago baten eraikuntzan pertsona guztiek parte hartzea, hain zuzen.

Horregatik guztiagatik, elkartasuna eta lankidetzaren langai duten elkarteentzat, boluntariotza funtsezkoa izan da, da eta izango da. Izan ere, bizipen eta esperientzia konkretuetatik abiatuta, elkarlanean diharduten bi elkarte, gizarte eta kulturek bat egitea ahalbidetzen du boluntariotzak. Orobat, gizartean modu zehatzean inplikatzeke esperientzia eskaintzen du. Beraz, pertsonak, elkarteak eta gizarteak elkarri lotu eta harremanetan jartzeko modu bat da.

Boluntarioen esperientziak argi uzten duenez, pertsona baten ekintzak, gizarte-antolakunde ugariaren laguntzarekin batera, efektu biderkatzailea izaten du. Hori da, hain zuzen, “tximeleta-efektua” deritzona: pertsona batek pertsona ugari mugiaraztea. Horrela baino ez da lortuko mundua aldatu eta gizartea astintzea.

Aurrekoari lotuta, boluntariotza garrantzitsua da gizarte-erakundeentzat, sentsibilizazio- eta inplikazio-lanetan lagungarri gerta baitaiteke. Horrenbestez, boluntariotzari esker, inplikaturik dauden elkarteek beren helburuak lor ditzakete.

Eta, jakina, boluntariotzak -bere txikitasunean- umil jokatzen behartzen gaitu, baina, aldi berean, pertsona baten inplikazioak zer-nolako eragina izan dezakeen ere erakusten digu. Eta azken kontu bat ere bai: guk bakarrik gauza txikia dirudigu; baina beste pertsona batzuekin batera lan eginez gero, gure inplikazioa pertsonalak bide bat seinala dezake. Gure motibazioak eta itzaropenak beste pertsona batzuen laguntzari esker baino bete ezin daitezkeela ere erakusten digu boluntariotzak.

Praktikan jartzeko

Jarraian, aurreko ataletan aipatu ditugun alderdiak lantzeko zenbait dinamika egingo ditugu, multzoka banatuta. Zenbait kasutan, dinamikak nola planteatzen diren, multzo batean zein beste batean sar litezke; baina, edonola ere, gure iritzi, garrantzikoena haiek eskura izatea da. Bideratzaileak ikusiko du zer helbururekin erabiliko duen dinamika bakoitza. Banaka nahiz taldeka lantzeko moduko dinamikak dira, eta honela sailkatu ditugu:

- Norbere burua ezagutzeko dinamikak.
- Errealitatea ezagutzeko dinamikak.
- Gaiari sakontzeko dinamikak: boluntariora, motibazioak eta itxaropenak.
- Komunikazioa lantzeko dinamikak.
- Bideo-foruma.

NORBERE BURUA EZAGUTZEKO DINAMIKAK⁷

Erreportarien dinamika

Mota: Taldekakoa.

Iraupena: 40 minutu.

Helburuak: Parte-hartzaileek beren burua aurkeztu eta denek elkarren berri jakitea. Nork bere motibazioei eta itxaropenei buruz gogoeta egitea eta taldeari horren berri ematea.

Garapena:

Binaka jarri eta nork bere burua besteari aurkez diezaiola eskatuko zaie parte-hartzaileei. Hamar minutuan aurkezpenerako garrantzitsuak izan litezkeen zenbait datu elkarri esan eta bakoitzak boluntariotzatik zer espero duen esango du. Denbora-tarte horren ostean, banaka-banaka, parte-hartzaile bakoitzari bere bikotekidea taldekide guztiei aurkezteko eskatuko zaio. Horrela, itzulia askoz biziagoa izango da, eta nork bere buruari arreta jarri ordez, norberarekin boluntariotzaren abenturari ekitera doazen taldekideen ezauzgarri erreparatuko die.

⁷ Bilduma honetako beste aleetan (24-29) mota honetako dinamika gehiagoren berri ematen da.

Elkar ezagutu dezagun

Mota: Taldekakoa.

Iraupena: 45 minutu.

Helburuak: Taldean integratzea eta bakoitzak boluntariotzatik zer espero duen besteekin konpartitzea.

Garapena:

Bideratzaileak orri bat emango dio parte-hartzaile bakoitzari; izen-abizenak orrian idatzi, eta parte-hartzaileek kamisetan ezarriko du, kateorraz batez lagundurik. Era berean, taldeak eratuko dira, abizenaren lehen hizkiaren arabera. Behin taldeka jarri ostean, nork bere burua aurkeztuko du, eta zenbait konturen berri emango diete elkarri: non bizi diren, non egiten duten lan eta abar. 10 minutu izango dute horretarako. Gero, atzera ere aulkietan eseri, eta koloretako kartoi meheko txartelak banatuko zaizkie, pertsona bakoitzak hitz batean gehien atsegin duena bertan idazteko (lan egitea, musika entzutea, adiskideekin egotea...). Musika ere jarriko da, gozo-gozo, eta parte-hartzaileei aretoan barrena ibil daitezela eskatuko zaie, beren taldekideei begira-begira, betiere txartelean idatzi eta kamisetan ezarrita daramaten hitza oso gogoan dutela. Bideratzaileak eskatzen dienean, taldeka bilduko dira, hitzen kidetasunaren arabera. Elkar aurkeztu, eta boluntariotzatik zer espero duten esango diote elkarri. Gero, pertsona bat hautatuko dute, moderatzaile-lana egin dezan, eta taldeari izen bat jarriko diote. Taldeak antolatuta daudenean, eta talde bakoitzak behin-betiko izaera lortzen duenean, jorratu beharreko gaiak landuko dituzte.

Iradokizunak:

Taldeen erabateko zentzua izatea sustatu nahi bada, topaketa hasi eta bukatu arte taldeak bere horretan utz daitezke. Talde bakoitzak topaketa amaitzeko jarduera bat antolatu, eta “lagun ezkutua” izeneko jolasa egin daiteke, parte-hartzaileen integrazioa are handiagoa izan dadin.

Lekuarekin identifikatzea

Mota: Taldekakoa.

Iraupena: 40 minutu (taldean dauden lagunen arabera).

Helburuak: Pertsona bakoitzak bere burua aurkeztea, eta, aldi berean, beren interesen eta balioen berri jakitera ematea.

Garapena:

Bideratzaileak, jendea zirikatu eta lekua ezagutzera gonbidatzeaz batera, zerbait bila dezatela eskatuko die: koadro bat, estatua bat edo beren arreta pizten duen beste edozer gauza. Denbora-tarte bat emango zaie, ezer esan gabe leku horretan barrena ibili eta arreta piztu dien hori identifika dezaten. Gero, nor bere burua aurkeztu, eta objektua zergatik aukeratu duen esango du, bai eta beste kultura bateko pertsonen objektu horren berri nola emango liekeen ere. Gainerako parte-hartzaileek galderak egingo dituzte, hala nahi izatera.

Aurkezpenaren ostean, bideratzaileak taldearen motibazioak laburtuko ditu, eta hautemandakoak haiengan izandako oihartzunaren berri eskatuko die.

Nor naiz ni

Mota: Banakakoa (taldekakoa ere izan liteke).

Iraupena: 50 minutu.

Helburuak: Nork bere burua ezagutzea eta pertsonarteko komunikazioa sustatzea.

Garapena:

Parte-hartzaile bati esaldi bat emango zaio, hari buruzko bere adostasuna edo adostasunik eza agertu, eta haren aldeko edo kontrako iritzia eman dezan. Esaldiak honela dio: “Bizitzak merezi du, baina borroka egiten dutenak, beren burua ezagutzen dutenak, nor izan nahi dutenak, bizi, horiexek baino ez dira bene-benetan bizi”. Esaldi horren inguruan gogoeta egitera gonbidatuko dugu, eta, horretarako, orri bat eman, eta, bertan, haren alde ala kontra ote dagoen esateaz batera, esaldi horrekin bat datozen edo guztiz bestelakoak diren esperientziak idazteko eskatuko zaio. Oharrak idatzi ostean, eta idatzitakoa nahiz bere ezagutzak oinarri hartuta, bere gaitasunen eta ahuldadeen berri emateko eskatuko zaio, gero, bide-laguntzaile izango duen pertsonari azaltzeko.

Iradokizunak:

Dinamika hau taldekakoa ere izan liteke. Halakoetan, bigarren une batean, taldeari beren buruaren berri emateko eskatuko zaie pertsonari. Taldeko pertsona bakoitzaren izena arbelean idatziko dugu, eta izenaren ondoan, berriz, pertsona bakoitzaren ezaugarri bat. Taldeak berak, halaber, beste ezaugarriren bat gehi dezake, aurkezpenean esandakoa edo pertsona horri buruz alde aurretik bagenekiena oinarritzat harturik. Azkenik, jarduera nola bizi izan duten komentatzeko eskatuko zaie taldekide guztiei.

Aurkezpena, argazkiez lagundurik

Mota: Taldekakoa.

Iraupena: 45 minutu.

Helburuak: Taldekideen arteko komunikazioa erraztea.

Garapena:

Hasieran, argazki batzuk jarriko dira mahai gainean, eta arkatzez zenbaki bana ezarriko zaie. Parte-hartzaileei argazkiei erreparatzeko eskatuko zaie, bai eta bat hautatzeko ere; zein sentitzen duten gertukoena, huraxe. Argazkia hautatzen dutenean, talde txikitan banatzeko eskatuko zaie, eta beren artean hautatutako argazkiari buruz hitz egingo dute. Era berean, taldeek ordezkari bana izendatuko dute, parte-hartzaile guztien aurrean aurkezpen bat egin dezaten.

ERREALITATEA EZAGUTZEKO DINAMIKAK⁸

Txirotasunak txirotasun

Mota: Banakakoa (taldekakoa ere izan liteke).

Iraupena: Ordubete.

Helburuak: *Txirotasun* kontzeptuan sakontzea eta pertsonen garapenerako edo ez-garapenerako zer txirotasun-mota diren egokiak balioestea.

Garapena:

Aurkeztu beharreko testua banatu eta, hura irakurri ostean, boluntariotzan zer garapen-proposamen sustatu nahi duen finkatzeko eskatuko zaio parte-hartzaile bati. Gero, haren eta bideratzaile baten arteko elkarriketa bat abiaraziko da. Boluntariotzan jarduteak zer ekarpen egin dezakeen zorrotz balioesteko eskatuko dio bideratzaileak parte-hartzaileari.

Txiroak

- Txiroak, egiazko txiroak, astirik galtzeko astirik ez dutenak dira.
- Egiazko txiroak isiltasunik izan ez eta hura erosi ere ezin dutenak dira.
- Zangoak bai, baina oinez ibiltzen ahaztua dutenak dira, oiloen hegoek ere hegan egiten ahaztu duten gisa berean.
- Zaborra jaten dutelarik, hura janaria balitz bezala pagatzen dutenak dira.
- Kaka aire garbia balitz bezala arnasteko eskubidea dutenak dira.
- Telebista-kate bat jarri eta beste bat kendu, horretarakoxe baino ez dira aske.
- Makinekin ezbehar pertsonalak izaten dituztenak dira.
- Askoren artean egonda ere beti bakarrik daudenak dira.
- Txiroak, egiazko txiroak, txiro direnik ere ez dakitenak dira.

⁸ Bilduma honetako beste aleetan (24-29) mota honetako dinamika gehiagoren berri ematen da.

Iradokizunak:

Taldekako dinamika bat egin daiteke. Horretarako, talde txikitan banaka hausnartutakoari buruzko bateratze-lan bat egingo da. Gero, talde bakoitzaren proposamenak aurkeztuko dira. Gainerako taldeek puntuak emango dituzte, aurkezpenaren, arrazoibideen eta proposamenak martxan jartzeko aukeren arabera, eta denen artetik bat izendatuko da garaile. Horixe izan liteke amaiera egokia, baina dinamikak jarrai dezake gero ere, garaile irtendako proposamenari beste talde batzuek proposatutako elementuak edo dinamikan zehar agertuz joan litezkeen elementuak gehituz.

2.600 milioi pertsonak 2\$ baino gutxiago du eguna pasatzeko

Mota: Taldekakoa.

Iraupena: 50 minutu.

Helburuak: Jendea injustiziaren arazoarekiko sentikor bihurtzea eta haren kausak aztertzea.

Garapena:

Orri-biratzaille batean esaldi hau irakurtzen da: “2.600 milioi pertsonak 2\$ baino gutxiago du eguna pasatzeko”. Esaldia irakurri eta irmo adierazten da guk ez dugula hura irakurrita ezer sentitzen, arazoaren larritasuna ukatzen ez badugu ere. Talde txikitan bildu, eta lantxo bat egiteko desafioa botako zaie parte-hartzaileei, jendea arazoaz jabearaztea helburutzat harturik. Lantxo horretan, zenbait eslogan eta kanpaina burutuko dira, inguru gertueneko jendeari aurkezteko. Geroago, osoko bilkuran landutako proposamenak aurkeztuko dira, eta azkenik, dinamikaren inguruan hausnartzeari ekingo zaio: zer iradoki digun, zer sentitu dugun errealitate hori ikusita...

Iradokizunak:

Esaldiak aldatu, eta beste zenbait gairen inguruko datuak jaso daitezke: genero-berdintasunari buruzkoak, ingurumenari buruzkoak, osasunari buruzkoak, nazioarteko merkataritzari buruzkoak eta abar.

Hegazkinaren jolasa

Mota: Taldekakoa.

Iraupena: Ordubete.

Helburuak: Munduko desberdintasunei erreparatzeko moduan sakontzea.

Garapena:

Aurkeztu beharreko testua banatu, eta parte-hartzaileak talde txikitik bilduko dira, hura irakurri eta elkarren artean eztabaida dezaten, testuaren amaieran dauden bost galderak oinarriztat harturik. Haien ondorioak aurkezteko, esketx bat egiteko edo erantzunak antzetzeko eskatuko zaie. Den-denek parte har dezatela eskatuko zaie.

Lapurreta:

Ederra da hegan egitea. Ederra eta hunkigarria. Helmugara iristean aurkituko ditugun lekuak eta pertsonak imajina ditzakegu.

Beste hegaldi-mota bat ere imajina dezakegu; desberdina, bai, baina kitzikagarria. Ehun mila bidaiari eraman ditzakeen hegazkin batean gaude, irtear. Hegazkineko laguntzaile batek bozgorailu batetik dioenez, hegaldiak hogeita lau ordu (urtebete, sinbolikoki) iraungo ditu. Zure ingurura begira zaude. Izan ere, ez gaude ohituta pertsona horiek guztiak ikusten. Hizketari ekiten diogu, eta estatistikak egiten hasten gara.

Kontinenteka banatuta dauden mila bidaiarietatik 605 asiarrak dira, 140, afrikarrak, 113, europarrak, 86, hegoamerikarrak, 51, iparramerikarrak, eta bost Ozeanian bizi dira.

Erljioari dagokionez, 330 kristauak dira, 202, musulmanak, 119k erlijiorik ez dutela diote, 133, hinduak, 58, budistak, 23, ateoak, hiru, juduak, eta 132k beste erlijioen bat dute.

Arreta ematen digu pertsona horien adinak: 372 bidaiari 20 urtetik beherakoak dira, eta beste 103, 60 urtetik gorakoak. Pertsona horiei beren lanbideari buruz galdetzen diegu, eta honela dioskute: 184k nekazaritzan dihardute, 162k zerbitzuetan, 92k, industrian, eta 30 lan bila dabiltza.

Hegazkinen zerbitzariak egunkariak banatzen ditu, eta ea zer hizkuntzatan nahi duten galdetzen die bidaiariei. 165 pertsonak txineraz hitz egiten dute, 86k, ingelesez, 83k, hindieraz, 64k, gazteleraz, 58k, errusieraz, eta 37k, arabieraz. Beste bidaiari batzuek bengaleraz, portugesez, indonesieraz, japonieraz, alemanez eta frantsesez hitz egiten dute -gehien hitz egiten den hizkuntzatik gutxien hitz egiten dena-, eta beste 200 hizkuntza ere entzun daitezke. Beraz, zaila izango da elkar ulertzea.

Hegaldi bete-betean gaude. Harrigarria da nola banatzen dituzten gosariak. Hogeita bost bidaiarik -den-denak europarrak eta iparramerikarrak- hiruna plater dituzte; beste 55 bidaiarik kafea eta croissant erdi bat hartzen dute; eta beste hogeik apurtxo batzuk baino ez dituzte ahora eramateko.

Jatordua iritsi da berriz ere. Harrigarria badirudi ere, orain ere gosaritan bapo jan dutenak ari dira bazkaltzen; lehen baino are janari gehiago dute gainera!

Pertsona guztientzat janari kantitate bera zergatik ez ote dagoen galde liteke, noski. Sor litezkeen arazoak konpontzeko, bidaiari-txartelaren kostuaren zati bat gordetzea proposatu da. Baina, edonola ere, tripulazioak dio dagoeneko gastatuak dituztela jasotako 20 mila euro inguru. Milaka euro xahutu omen dituzte gazteenen prestakuntzan; 800 euro, medikuntza-gastuetan; eta 1.500 euro, armetan, sor litezkeen borrokak saihesteko.

Zenbait bidaiari beren lekuetatik jaiki dira, ikusten ari direna sinetsi ezin dutela. Lasterka doaz kabinarantz, kontuak eskatzera: Nola gerta liteke halakorik? Nor da horren guztiaren arduraduna? Zergatik daude horrenbeste desberdintasun bidaiarien artean? Nola utz dezakegu goseak jendea akaba dezan?

GAIAN SAKONTZEKO DINAMIKAK: BOLUNTARIOTZA, MOTIBAZIOAK ETA ITXAROPENAK

Motibazioei buruzko galdeketa

Mota: Banakakoa (taldekakoa ere izan liteke).

Iraupena: 30 minutu.

Helburuak: Motibazioen berri ematen hasia.

Garapena:

Bideratzaileak motibazio baten berri ematen digu, eta orobat esaten digu edo zer gauzari ekiten diogunean zenbait galderari erantzun behar diegula: Zer da egin behar dugun hori? Zein da gure jarrera? Zer lortu nahi dugu? Jarraian, galdera hauei erantzutera gonbidatzen diegu parte-hartzaileei: Zergatik interesatzen zaizu boluntariotza? Zein da zure gogo-egoera hari ekiteko? Zure ustez, zer ekarriko dizu esperientzia horrek? Zer ekarpen egiteko prest zaude?

Irakizunak:

Banaka lan egin daiteke, bai eta taldeka ere, elkarren iritzien eta gogo-egoeren berri jakiteko.

Gauzak argitze aldera, hauxe izan liteke motibazioei buruzko aurkezpen egoki bat: esan dezagun motibazioek aldaketak eragin ditzaketela gugan, eta horixe dutela bertute nagusia; hau da, guk nahi bezala ekitera bultzatzen gaituztela. Gutariko bakoitzaren bizitzaren ibilbidea eraikitako zerbait da, eta horren oinarrian motibazio kontzienteak (arrazionalak) daude, bai eta ume garela sortutako sozializazio-prozesuei lotutako beste hainbat motibazio inkontziente ere. Motibazioen jatorria irrikak izan daitezke, eta, beraz, ezinbestez bereizi behar ditugu irrika horiek eta haiei buruzko ideiak. Motibazioak eboluzionatuz doaz. Krisialdi-garaietarako motore izaten dira; goizero ohetik jaikitzen bultzatzen nauten bizi-bulkadak izaten dira. Plurala darabilgu, motibazioak beti izaten baitira askotarikoak, elkarrekin nahastuta ageri direnak. Nire pertsona-izatearen ernamuina ukitzen dute, ez soilik nire arrazoimena, ez soilik nire afektibitatea. Motibazioen inguruan lan egitea

lagungarri gertatzen da etengabe gogoan izan ditzagun, geure gaitasunen eta mugen berri izan dezagun.

Dinamika planteatzean, oso kontuan hartu behar dugu non geunden hari ekin baino lehen, eta non gauden orain. Gogoan hartu eta, gero, alderatu.

Motibazioen denboraren lerroa

Mota: Banakakoa (taldekakoa ere izan liteke).

Iraupena: 40 minutu.

Helburuak: Gure ibilbide pertsonalean boluntariotzara zer motibaziok eraman gaituzten jakitea.

Garapena:

Pertsona batek denboraren lerroa marraz dezala orri batean, eta boluntariotzan eta nazioarteko elkartasunean jarduteko erabakigarri gertatu zaizkion lau une nagusiak azal ditzala eskatuko zaio. Denboraren lerro horretan, nabarmen adierazi behar dira pertsona hori boluntariotzan jardutera eraman duten zenbait elementu: une zehatzak, pertsonak, lekuak, esperientziak eta motibazioak. Gero, egindakoaren berri bideratzaileari emateko eskatuko zaio, hark motibazio garrantzitsuenak identifika ditzan.

Iradokizunak:

Talde bat osa liteke, eta proposatu, marraztutako denboraren lerroa aldamenean dugun pertsonarekin partekatzeko. Motibazio horiek gainerako taldekideen motibazioekin alderatu, eta elkarren antzik handiena dutenak identifika.

Gauzak eta kasuak

Mota: Banakakoa (taldekakoa ere izan liteke).

Iraupena: 30 minutu.

Helburuak: Boluntariotzaren esperientziari buruz gogoeta egitea, eta itxaropenen, testuinguruaren eta motibazioen inguruko aldaketei nola aurre egin hausnartzea.

Garapena:

Boluntarioen esperientzietan oinarritutako zenbait kasu azaldu, eta parte-hartzaileei honako hau eskatuko zaie:

- Zailtasunen bat edo beste izan direneko korapiloak identifikatzea.
- Haietako bakoitzarengan alderdi horietako batek zer eragin izan dezakeen balioestea.
- Egoera berean baleude, zer-nolako erreakzioa izango luketen imajinatzea.
- Arazoren bat sortzen dien hori konpontzeko edo aldatzeko, zer urrats emango luketen argitzea.

Irakokizunak:

Banakako lana egin ostean, taldekako lana egin daiteke, norberaren ikuskerak eta konponbideak besteekin partekatzeko.

1. kasua:

Boluntario batek hilabeteak daramatza El Salvadorrerako bidaiari prestatzen. Irte-teko eguna iritsi da, eta senitartekoak eta adiskideak joan zaizkio aireportura, agurtzera. San Salvadorrera iritsi eta “Fe y Alegría” heziketa konpentsatzaileko gunera heltzeaz batera -han bi urte emango baititu lanean-, dei egingo diela esaten die. Bera hegan doala, lurrikara batek El Salvador astintzen du, bai eta San Salvador hiriarren zati bat ere. Hegazkinak Costa Ricako San Josén lur hartu du, eta denbora-tarte bat esperoan igaro ostean, atzera ere San Salvadorrerantz abiatzen dira. Egun bete baino zertxobait gehiagoko atzerapenez helmugara iristen direnean, herrialdea guztiz birrinduta aurkitzen du. Egun batzuen buruan, zeregin bat ematen diote: ezagutu ere egiten ez dituen bideetan barrena kamioi bat gidatu eta jendeari laguntza humanitaria helaraztea.

2. kasua:

Hilabeteak daramatzazu elkarte interesgarri batean; baina, hala ere, elkarteak ez ditu zure itxaropenak asetzen. Zure asmoa hurrekin lan egitea zen, baina zure elkarteak guztiz bestelako lanetan dihardu; komunitateak sustatzea da elkarte horren helburua, bertako kideen parte-hartzea eta komunitate-barruko premiak eta arazoak konpontzea oinarritzat dutenak. Lan-taldean integratzen ari zara, nahiz eta kostata aldatu duzun harekiko zeure ikuspuntua; eta zeure burua taldeari gero eta lotuago ikusten duzu. Denbora baten buruan, komunitateek eta elkarteek jarrera irmoa hartu dute gobernuak hartutako zenbait erabakiren aurka, eta gose-greba bati ekitea erabakitzen dute. Gainerako kide guztiek bezala, zuk ere gose-greban parte hartu nahi duzu, komunitateei eta elkarteari zure babes eta konpromisoa erakusteko, baina ez hara bidali zaituen elkarteak, ez han hartu zaituenak, ez dizute parte hartzen uzten.

3. kasua:

Azkenean, badakizu nora zoazen. Kazetaria zara eta herri txiki bateko irrati komunitario batean kolaboratzera zoaz. Gainera, prestakuntza-prozesuan zurekin batera egondako lankide bat ere zurekin joatekoa da. Hala bada, den-denak du zentzua. Leku horretan boluntarioritza egiten jardun duten pertsonekin hitz egin duzue, eta lekuaren alde on eta txarren berri eman dizuete. Zailtasun guztiak gorabehera, den-denek animatu zaituztete hara joan eta esperientziaz gozatzera. Bidaiari ekin diozu, baina hilabete lehenago joan den zure lankideak hango berri eman dizu. Lantoki izango duzun irratiko bulego nagusira iritsi zara; bulegoa hiriburuan dago, eta handik koordinatzen dira gainerako irratietako jarduerak, bai eta inprenta bat eta heziketa-prozesu guztiak ere. Bertako jendea ezagutzen ari zarela, beste leku batera joan zaitezen proposatzen dizute; izan ere, beste bi pertsona iristekotan omen dira, eta lau lagun gehiegitxo lirateke. Hiriburuan gera zaitezen esaten dizute, hango irratian laguntzeko.

Dekalogoak

Mota: Taldekakoa.

Iraupena: 40 minutu.

Helburuak: Boluntariotzaren balioez jabeaztea eta haiek barneratzea.

Garapena:

Boluntariotzaren aldeko apustua eta horrek izan ditzakeen ondorioen inguruan, taldea motibatzeari ekiten zaio. Talde txikitan bildu, eta parte-hartzaileei hamar esaldi idazteko eskatuko zaie, honako hauen balioen berri emango dutenak: boluntariotzan diharduten pertsonak, taldeen arabera bidaltze-elkar-teak eta harrera-elkar-teak. Idatziz jasotako dekalogoak osoko bilkuran aurkeztuko da, eta behar adina gauza gehiago gehituko zaizkio. Gero, beste hainbat gauza ere aipa litezke; adibidez, ordura arte inork pentsatu ere egin ez duen zerbait edo norbaiten harridura piztu duen zerbait.

Iradokizunak:

Jarduerarekin jarraitzeko, argitalpen honetako “Zergatik boluntariotzaren aldeko apustua?” atala bana daiteke. Hura irakurri ostean, berriz ere dekalogo bat idazteko eskatuko zaie parte-hartzaileei. Ordura arte oharkabean joandako xehetasunei buruz gogoeta egingo da.

Frustrazioak eta norberaren burua hobetzeko saiakerak

Mota: Taldekakoa.

Iraupena: Ordubete.

Helburuak: Frustrazioren bat eragin duten norberaren bizitzako esperientziei buruz gogoeta egitea, eta frustrazio horiei nola egin zaien aurre azaltzea.

Garapena:

Bideratzaileak boluntarioei eskatzen die gogora dezatela frustrazioa eta ezintasuna sentiarazi dien esperientziaren bat, eta idatz dezatela horri buruz orri batean. Zirkuluan eserita bagaude, gure idatzia eskuinean daukagun lagunari pasatuko diogu, egoera horretan nola jokatu zuen adieraz dezan. Bere gogoeta idazten duenean, orria erditik tolesteko eskatuko diogu, egoera argi irakurtzeko moduan, bai, baina idatzi berri duena irakurtzeko modurik izan gabe; horrela, orria jasotzen duen lagunak egoera zein den irakurri, eta haren aurrean nola jokatu lukeen idatziko du; gero, eskuinean duen lagunari pasatuko dio. Azken horrek gogoan hartuko du kasua, bi erreakzioak irakurriko ditu eta taldeari aurkeztuko dizkio. Esperientzia hura bizi izan zuen pertsonak une hartan zer-nolako erreakzioa izan zuen azal dezake. Erreakzio guztiak entzun ostean, etorkizunean frustrazioei aurre egiteko lagungarri gerta litezkeen modu eta estrategiak identifikatzen saia gaitezke.

Beldurak eta esperantzak

Mota: Taldekakoa.

Iraupena: Ordubete.

Helburuak: Interesa nahiz beldurra sor dezaketen gaiak lantzerantz iristeko, jendeak dituen sentipenak eta kezkek azalerratztea.

Garapena:

Bideratzaileak motibazio-saio labur bat egingo du esperantzei eta beldurrei buruz. Pertsona guztiei eskatuko zaie ordena zehatzik gabe idatz dezatela boluntariotzak eragiten dizkien beldurrei eta esperantzei buruz (modu orokorrean edo gai zehatz bat ardatz hartuta formula daiteke). Bakoitzak idatz ditzala bere bi beldur eta esperantza handienak, horixe eskatzen die bideratzaileak. Ondoren egin beharreko bateratze-lanean, pertsona bakoitzak alde aurretik idatzitako beldur bat aipatuko du, eta bideratzaileak arbelean idatziko du, ahalik eta modurik laburrenean, eta gizona ala emakumea den ere aipatuko du. Bideratzaileak azalduko du denek beren idatzien berri eman ostean aukera izango dutela ordura arte inork aipatu ez duen edozer gauza esateko, horretarako beharra dagola uste badute. Gero, gehien aipatutako gaiei buruz hausnartuko da, eta, halaber, sexuaren araberrako alde nabarmenik egon ote den erantzunetan. Berriz ere talde osoari zuzenduta, gehien harritu dieten bi gaiak hautatzeko eskatuko zaie. Denen iritzi-trukea entzun ostean, boto gehien jaso dituzten gaiak aipatu, eta, taldeka, beldur hori ardatz hartuta, kartel bat, mural bat edo goiburu bat asmatzeko eskatuko zaie, bai eta beldur horri aurre egiteko moduak proposatzeko ere. Azkenik, landutakoa jendaurrean aurkeztuko dute.

Iradokizunak:

Hala nahi izatera, jardueraren aurretik ala gero, banatu parte-hartzaileei argitalpen honetako “Gauzak guk uste bezala ez direnean” atala. Taldeak horretan laguntzen badu, egokia litzateke generoaren inguruko aldeei buruz gogoeta egitea.

Bakardadeak

Mota: Banakakoa/taldeakakoa.

Iraupena: Ordubete.

Helburuak: Bakardadeak harrapatzen digunean nola jokatzeko dugun onartzea eta hari ahalik eta modurik egokienean nola aurre egin jakitea.

Garapena:

Banaka nahiz taldeka Jorge Drexler-en “Soledad” kanta entzuteko proposatzen du bideratzaileak; kanta dioenari jarraituz, (1) bakardadea “ate joka” noiz izaten dugun eta 2) bakardade horri aurre egiteko zer estrategia erabil ditzakegun argitu behar dugu. Lan hori pertsonala da, eta idatziz egin behar da. Banakako lanean, geure estrategiak lankidearen estrategiekin aldera ditzakegu, estrategiok aberasgarriagoak izan daitezten eta antzeko jarraibideez baliaturik joka dezagun. Taldekako lanean, talde txikiak osatu, eta estrategiak bateratuko dira; bakardadeari aurre egiteko estrategiekin, errezeta bat edo botika baten posologia idazteko eskatuko zaie parte-hartzaileei.

Iradokizunak:

Lan pertsonala egiteko, kantaren letra erabil daiteke.

Bakardade,
hona hemen nire egiaztagiria,
aspaldi da
ate joka nabilkizula;
elkarrekin igaroko ditugu
ekaitzak, hara:
elkar ezagutzea proposatzen dizut.

Hemen naukazu,
nire orbainak ematen dizkizut,
hitz gutxi batzuk
pentagrametan idatziak,
baina ez erreparatu esaten
dutenari,

isilpean utzitako gauzatxo
bakoitzean aurkituko nauzu.

Joana da,
lausotzen utzi dut honezkero
bizitzak minik ematen
ez duelako ametsa.

Bai gauza bitxia, bakardade,
bakarrik egoten oso ondo inoiz
jakin ez duen honek zu izatea
aldamenean topatu
duen adiskide bakarra.

Jorge Drexler

Silueta

Mota: Taldekakoa.

Iraupena: 90 minutu.

Helburuak: Boluntarioei buruz eta Iparraldeko nahiz Hegoaldeko gizarteei buruz Iparraldean nahiz Hegoaldean nagusi diren estereotipoak gogo-eta-gai hartzea.

Garapena:

Talde txiki bakoitzari zatar-paper biribilki bat ematen zaio, taldekide bat haren gainean etzan eta bere silueta bertan marrazteko behar adinako luzera duena. Gero, silueta bertikalki bitan banatzeko eskatuko zaie. Siluetaren aldeetako batean Hegoaldean diharduten boluntarioei buruz haien iritziz egon litezkeen estereotipoak eta ideiak idazteko eskatuko zaie; eta beste aldean, Iparraldean diharduten boluntarioei buruzkoak idazteko. Siluetaren kanpoaldean, Iparraldeko pertsonak Hegoaldeko errealitateari buruz dituen estereotipoak idazteko eskatuko zaie; eta siluetaren beste aldean, alderantziz. Gero, egindako lana bateratu egingo da, eta kasu guztietan gehien errepikatutako alderdiak zein izan diren aztertuko dugu, bai eta esandakoaren inguruan aldeko joerarik egon ote den ere.

Geroago, atxikitako testua banatuko dugu (<http://www.alboan.org/formacion/documentos.asp?id=12> “Boluntariotzaren erronkak, Hegoaldetik begiratuta”, 11. eta 12. or.), taldeek testu hori landu, eta taldekideek elkarren artean eztabaida dezaten -zerk harritu dituen gehien, aldez aurretik zer esperientzia izan dituzten edo zer entzun duten, aipatu diren estereotipoak berresten dituztenak-.

Iparraldeko boluntarioak (Santiago Vallebuonaren lan batetik)

Iparraldeko boluntarioek behar edo erronka bikoitz bati erantzun diezaioketela uste dugu:

Hau da **lehenengo erronka**: “Iparraldearen eta -Hegoaldearen arteko harremanak gizatiartzea”. Izan ere, harreman horiek erabat desitxuratzen ditu sistema neoliberal egoistak eta materialistak, zeinak mendebaldeko kultura-eredu baztertzaile eta ankerra -gizakia ekonomiaren menpe jartzen duena- inposatzen duen.

Pertsonen, kulturen, arrazen... arteko harremanaren bidez, boluntarioak “bakearen kultura” bultzatzen du, justizian, berdintasunean eta solidaritatean oinarritutakoa.

Nazioarteko harremanak gizatiartzeak “boterearen” logika, “guztia dakienarena”, “goian dagoenarena” aldatzea esan nahi du, eta, haren ordeztuz, “errespetuaren, elkarriketaren, desarmatzearen, bestearen egia aitortzearen eta besteekin partekatu, ikasi eta bizitzearen” logika onartzen du.

Hori egitea zailagoa gertatzen da bestea baztertuta sentitzen denean. Sistemak ezartzen dituen mailak gairatzeko elkarriketa eta berdintasun gehiagoko espazioak erabiltzea utopikoa edo artifiziala iruditzen daiteke. Baina boluntarioen esperientzia horiek ekarpen eta keinu sinboliko probetxugarriak egiten dizkiete bai Iparraldeari eta bai Hegoaldeari.

Sistemaren aurreko askatasunarekin eta malgutasunarekin gazte garaian bizitako esperientzia horiek boluntarioen bizitza eta haien ingurukoena baldintza dezakete.

Bigarren erronkak, berriz, profesionalki eta teknikoki eraginkorra izatea eskatzen du, boluntario baten laguntza eskatzen duten lekuetako garapen-proiektuen behar zehatzei erantzuteko.

Kultura arteko elkarlan horretan, Iparraldeko boluntarioak, profesionaltasuna izateaz gain, lan egiteko gaitasun zabala, malgua eta sortzailea izatea espero da. Zerbitzuak emateko dauden mugei buruzko espiritu kritikoa izan behar du, eta alde batera utzi paternalismo, mendekotasun edo kultura transferentzia oro, betiere prozesuak eta errealitateak errespetatuz.

Epe luzean, Iparraldeko boluntarioak Hegoaldeko erakundeekin aliatu estrategikoak bihurtu daitezke, Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko truke sozial eta teknologikoaren bidez.

Zerbitzu teknikoari dagokionez, boluntarioak gai izan behar du talde-lanean aritzeko eta beste kultura-eredu batzuetara egokitzeko hainbat arlotan: funtzionamendua, denboraren erabilera, komunikazioa, diziplina, gardentasuna, arlo profesionalaren eta pertsonalaren balorazioa. Ez da dirudien bezain erraza. Atzerrikoa dena neurritz gain baloratzen da, eta beharrezkoa da bertakoa lantzea eta baloratzea.

Boluntarioak konturatu behar du solidaritatea beharrezkoa dela baliabiderik edo teknologiarik ez duten taldeetan, eta mendekotasunik sortuko ez duten irtenbideak bilatzen lagundu behar die. Halaber, ez da egokia kanpoko laguntza

justifikatzen aritzea, proiektuek dituzten zailtasunak aitzakiatzat hartuta. Elkarren artean, testuinguru globalaren menpe dauden erralitateetan egin beharreko aldaketa zailei irtenbideak bilatzen saiatu behar dugu. Espazio txikietan borrokatzea da gure lana.

Bi erronka horien bidez, Iparraldeko boluntarioek “mistika sozial” bat eta kultura arteko elkarrizketa bultza dezakete, non, hartu-eman horizontal baten bidez, bi aldeek elkarpenak baloratuko diren. Hala, proiektu bateko kontratupeko lan-kideak izateaz gain, arlo pertsonal eta sozialeko proiektu handiago baten partaide izan daitezke.

Bestalde, “protagonista edo lider” papera ez hartzea gomendatzen da, tokikoen garapena oztopatzen duelako.

Prozesu horiek eskatzen duten denbora onartu behar da, pixkanaka egokitzen joateko, diferentziak eta prozesuak menderatzeko, eta zatiketak eragin beharrean, elkarrizketarako eta adostasunerako elementu bihurtu behar da.

Kaleko esaldiak

Mota: Taldekakoa.

Iraupena: 40 minutu.

Helburuak: Boluntarioen, Hegoaldeko errealtatearen eta abarren inguruko iritzi hertsiei buruzko eztabaida bultzatzea, jabetzeko haien atzean sentimenduak, espresio-moldeak eta erlazioak daudela.

Garapena:

Talde txikiak osatu, eta eskatuko zaie kartelak egin ditzatela, boluntarioei eta/edo Hegoaldeko errealtateari buruz leku publikoetan irakurritako esaldiekin (taldeen arabera). Kartelak itsatsiko, eta gaien arabera aztertuko dira; zer-nolako esaldiak diren -aurreiritziak, estereotipoak ala orokortzeak- sakon aztertu beharko dugu, eta guk geuk esaldi bakoitza nola esango genukeen proposatuko dugu.

Arrainen gizona

Mota: Taldekakoa.

Iraupena: Ordubete.

Helburuak: Boluntariotzaren garrantziaz gogoeta egitea eta gizarte demokratikoa-
goen eraikuntzan lan horrek zer garrantzi izan dezakeen hausnartzea.

Garapena:

Jarraian aurkeztera goazen ipuina, boluntariotzari buruzkoa, banatzen zaie taldekideei. Hura irakurri ostean, beren elkarteaz aztertzeko eskatuko zaie, alderdi hauek gogoan hartuta: boluntariotzak gizartearen zer esparru betetzen dituen; haietako bakoitza nola zehazten den historian; esparru horiek guztiak ote diren garrantzitsuak ala haietakoren bat bazter ote daitekeen. Halaber, pentsatzen jarriko ditugu denak, ea jarduera demokratikoan parte hartzeko eta beren inguruko gizarte-errealitatea aldatzeko zer aukera ote duten. Ipui-
nean, egin al zitekeen beste zerbait? Parte-hartzaileek boluntario-lanean al-
dez aurreko esperientziarik ez badute, hura imajina dezatela eta proposamen
bat nola aurkeztu pentsa dezatela eskatuko zaie.

«Arrainen gizona»

Oso ezaguna da gau batez, hiri handiko ibaiaren ertzean, goseak ia akabatu be-
harrean, aurkitu zuten gizonaren istorioa. Harekin hizketan amaitu zuen emaku-
meak bere hitza eman zion egunero-egunero -egunsentiarekin batera- emango
ziola senarrak, lan-eguna amaiturik, etxera eramaten zizkion arrainetatik bat.
Hala, bat-batean, arrain-iturri hari esker, ibaiko gizonak bere gose zantarra bare-
tzeko modua aurkitu zuen. Senarra, baina, egindakoa leporatzen hasi zitzaion
pixkana-pixkana emakumeari; egunero-egunero aurpegiratzen zion goseak zego-
en gizonari arrainak hain modu eskuzabalean eskaini izana. Ezinbestekoa zen,
beraz, beste zerbait egitea. Orduan, arrainen gizonari autonomia emango zion
zerbait bururatu zitzaion emakumeari: arrantzatzen irakatsi zion, kanbera era-
biltzen; are gehiago, kanbera bat ere egin zion, ahora eramateko zerbait izan ze-
zan. Horrela amaitzen da istorioa. Denok ikasi dugu txalotzen emakumearen ha-
sierako eskuzabaltasuna -haren bat-bateko eskuzabaltasuna-, bai eta geroagoko
haren erabakia ere, arrantzatu ezin zuen edo arrantzatzen ez zekien gizon hari bi-
tartekoak eta prestakuntza eskaintzekoa.

Istorioa, ordea, ez da hor amaitzen. Ibaia zuen hiri hartako karitatezko egunkariak ez zuten esan arrainen gizonak ez zuela inoiz kanaberarik erabili. Industriek erabat kutsatua zuten ibaia, eta ez zen ia arrainik geratzen. Horrez gain, beharrezkoa zen arrantzatzeako lizentzia bat; baina gizon goseberak ez zuten dirurik kuotak ordaintzeko. Ezer arrantzatu bazuen -legez kanpo betiere-, arriskuak ez ziren nolana hikoak izan: atzeman, atxilotu eta espetxean sar zezaketen, edo isunen bat jarriko zioten, bestela (esan gabe doa, noski, isun hura epaileei ordaintzeko dirurik ere ez zuela). Ezertarako balio ez zion kanabera eta gosea bera kolkoan zituela, hiri handiko lur-jabeen eta funtzionarioen ibaiertzetik kanpora bota zuten ibaiko gizona.

Dinamika klasikoa eta dinamika askatzailea

Mota: Taldekakoa.

Iraupena: 40 minutu.

Helburuak: Taldeekin lan egiteko moduen berri jakitea.

Garapena:

Bideratzaileak aurkezpen bat egingo du, zer motatako talde-dinamikak dau-den azaltzeko:

- Klasikoa: arreta taldean soilik jartzen duena. Dinamika-mota horretan, gizar-teak ez du kezkarik eragiten. Alderdi psikologikoari baino ez zaio garrantzia ematen.
- Askatzailea: arreta herriaren beharretan jartzen duena; dinamikez baliaturik, arazoak konpontzen ditu, eta pertsoneri kemena ematen die; baina hartan garrantzitsua da, orobat, errealitatea aztertzea eta aldatzea.

Gero, dinamika bat egingo dugu, dinamiken arteko aldeak argi gera daitezzen. Jarduera honi “Txanda pasa” esango diogu. Eratzun bat hartu, eta parte-hartzaileek elkarri pasatuko diote; horretarako, pospolo bat emango zaio bakoitzari. Pospoloa ahoan jartzeko eskatuko zaie, eta eratzuna bata besteari pasatzeko, harik eta pospoloa hasierako lagunarengana itzultzen den arte. Gero, parte-hartzaileei orri batean beren izena idatzi, eta egindako dinamika klasikoa ala askatzailea izan ote den erabakitzeke eskatuko zaie. Ondoren, bate-ratze-lan bat egingo da, eta, denen argudioak entzun eta gero, taldekide guz-tiak iritzi berekoak ote diren aztertuko da. Azkenik, dinamika askatzailea izan zedin jardueran zer aldatu beharko litzatekeen pentsatzeko eskatuko zaie.

KOMUNIKAZIOA LANTZEKO DINAMIKAK

Zeri buruz hitz egingo zenuke?

Mota: Taldekakoa/banakakoa.

Iraupena: 30 minutu.

Helburuak: Elkarrizketa informal batek zer-nolako sakontasun-maila izan duen jakitea. Pertsonen ni sakona ukitzen duten elkarrizketak eta edozein ezagunekin izan ditzakegun elkarrizketak bereizten jakitea.

Garapena:

Talde txikitik, 3-4 lagun elkarrekin hizketan ari dira, modu informalean, berdindio zer gairi buruz, 10 minutuz. Denbora-tarte hori igarotzean, bakoitzari bost minutu emango zaizkio, hizketa-gai izan dituzten gaiekin zerrenda bat egiteko; adibidez, familia, festak, adiskidetasun on batek izan beharreko osagaiak, ikusitako filmak, sexua eta abar. Gero, denen artean, ezagutzen ez ditugun pertsonekin ere hizpide hartzen ditugun gaiak identifikatuko ditugu, bai eta hurbileko adiskideekin hizpide hartuko genituzkeenak ere. Are gehiago, inorekin hitz egingo ez genituzkeen gaiak ere aipatuko ditugu. Gizon ala emakume izan, alde nabarmenik ba ote dagoen ere eztabaida dezakegu, bai eta kultura-testuinguruaren araberrako desberdintasunik ba ote dagoen ere.

Iradokizunak:

Geroago, “Gauzak guk uste bezala ez direnean: hango eta hemengo pertsonen arteko komunikazioa” atalaren kopia bana banatuko zaie parte-hartzaileei. Pentsa dezatela nazioarteko boluntariotzan emango duten denboran zer modu iruditzen zaizkien egokienak elkarrekin komunikatzeko.

Pertsonak, hitzak, lekuak

Mota: Taldekakoa/banakakoa.

Iraupena: 50 minutu.

Helburuak: Pertsonen elkarrekin komunikatzeko erraztasunak ematea; taldearen ideologiaren eta balioen berri jakitea.

Garapena:

Parte-hartzaile bakoitzari beretzat garrantzitsuak diren pertsona bat, hitz bat eta leku bat aukeratzeko eskatuko zaio. Gero, binaka jarri, norberaren aukeren eta arrazoien berri emango diete elkarri. Ondoren, hitz, pertsona eta leku bakar bat adosteko eskatuko zaie. Dinamika berbera egingo da berriz ere, baina sei lagunez osatutako taldeetan, eta talde bakoitzak hitz, pertsona eta leku bakar bat aukeratu beharko du. Azkenik, osoko bilkuran, seiko talde bakoitzak zer aukera egin duen esango du, horretarako arrazoiak emanez; aipatzen diren balio esanguratsuenak idatziko ditu bideratzaileak. Gero, pertsonentzat garrantzia duten pertsonen eta lekuen balioari buruz hitz egingo dute denek. Gizon ala emakume izan, balio horiek berdinak ote diren ere eztabaiatuko dute, bai eta kultura-testuinguruaren arabera desberdintasunik ba ote dagoen ere.

Talde-komunikaziorako lantegia

Mota: Banakakoa (taldekakoa ere izan liteke).

Iraupena: 40 minutu.

Helburuak: Taldekako komunikazioa eta talde-lanarekiko jarrera aztertzea.

Garapena:

Parte-hartzaile bakoitzari galdera hauei buruz gogoeta egiteko eskatuko zaie. Gero, taldekide batekin pentsatutakoaz hitz egin dezala, beste pertsonetikiko izaten dituen jarrerei buruzko bere burutazioen berri emateko.

Galderak:

- Talde batean sartzen naizenean, nola sentitzen naiz?
- Taldeak lanari ekiten dionean, nola jokutzen dut?
- Beste pertsona batzuek ezagutzen nautenean, nirekiko zer jarrera igartzen diet?
- Taldean bakarrik nagoenean, ongi sentitzen al naiz?
- Jendea isilik geratzen denean, zer erreakzio izaten dut?
- Eta baten batek asko hitz egiten duenean? Taldean nagoela, zer beldur izaten ditut?
- Baten batek aurre egiten didanean, zer erreakzio izaten dut?
- Noiz eta nola egiten didate min? Zer pentsatzen dute nitaz ongien ezagutzen nautenek? Noiz sentitzen naiz bakarrik taldean nagoenean?
- Zer-nolako pertsonengan daukat konfiantza?
- Zertan datza nire indar pertsonala? Nolakoa naiz? Noiz egoten naiz triste? Zer egoeratan sentitzen naiz larrien?

Iradokizunak:

Dinamika hau egin liteke taldeka ere, bateratze-lan baten bidez.

BIDEO-FORUMA

Jarraian, zenbait pelikula proposaten dira, taldean eztabaida sortzeko eta nazioarteko boluntariotzaren zenbait alderdiri buruz sakontzeko.

Auzo gorriko haurrak. Born into brothels. Kauffman, Ross; Briski, Zana; Madril: El País; Red Light Films, 2004.

83 min.

Born into brothels filmak dokumental onenaren Oscar saria irabazi zuen 2005ean. Zama Briski argazkilariak gauzatutako ekimenaren kronika da filma; Calcutako Auzo Gorriko prostituten seme-alabei aukera bat ematen ahalegindu zen Briski, eta argazki-kamera bat erabiltzen irakatsi zien horretarako. Hunkigarria eta zintzoa da dokumentala, eta sentimentalismoz biluztua; haurtzaroaren erresistentzia eta artearen ahalmen berritzailea goesten du filmak.

Un franco, 14 pesetas. Iglesias, Carlos; Madril: Drive Cine, 2005.

102 min.

Spainia, 1960. Bi lagun, Martin eta Marcos, sorterrria utzi eta Suitzara abiatu dira lan bila. Espainian utzi dituzte familiak eta aurrerapenaren eta askatasunen Europara jo dute, bestelako bizitza bati ekiteko ametsetan. Han guztiz bestelako mentalitate bat aurkituko dute, eta hartara moldatu beste aukerarik ez dute izango. Herri kozkor industrial batean biziko dira eta hango fabrika batean jardungo dute mekaniko. Pilar, Martinen emaztea, haien seme Pablo, eta Marcosen neskalaguna, M^a Carmen, iristearekin batera, bukatu egingo zaie gizon ezkongabeen bizimodua horrenbeste askatasuneko herrialde batean. Martinek eta Pilarrek lanean jarraituko dute buru-belarri, eta Pablo txikia

eskolara joaten eta integratzen hasiko da. Martinen aita hiltzean, hausnartu dute bila joan ziren hura lortu dutela eta itzultzeko ordua dela. Ezustean, ordea, zailagoa izango da itzultzea Suitzara abiatzea izan zena baino.

Qué tan lejos. Hermida, Tania; Madril: Karma Films, 2006.

92 min.

Esperanzak, Espainiako turista batek, eta Tristezak, Ekuadorko ikasle batek, Cuencara bidean doazela ezagutuko dute elkar. Bakoitzak bere arrazoia du Ekuadorko hiri hura igurikatzeko. Bidean doazela, greba nazional batek itxita dauka errepidea eta, ondorioz, beste bide bati heltzea erabakiko dute, eta gutxienez hurrengo herrira eramango dituen norbait bilatzen ahaleginduko dira. Bidean, elkar hobeto ezagutzen hasiko dira, baita Ekuadorko berri eta ekuadortarren berri izaten ere. Bidaiak ordu batzuk baino ez du iraungo, baina bizitzaren patua zer den, zirudiena baino askoz urrunago dago jomuga.

El largo viaje. Ferroukhi, Ismael; Madril: Karma Films, 2007.

104 min.

Aita batek bere semearekin batera Frantziatik Mekara egiten duten bidaia kontatzen du. Euren kulturari aita-semeen arteko komunikazioa zaila da, baina ez ezinezkoa. Gainera bien arteko aldea are handiagoa da (belaunaldi, kultura eta hizkuntza mailan) Frantziar exiliatu bizi direlako.

El viaje de Teo. Doehner, Walter; Mexiko: Astillero Films, 2007.

90 min.

Teo Oaxacako 9 urteko haurra da eta ez du bere aita, Wenceslao, ezagutzen. Bere osabarekin bizi da aita espetxeratu zutenetik. Egun baten, Wenceslao Teoren bila itzultzen da, Mexiko eta Estatu Batuen arteko muga elkarrekin zeharkatzeko. Muga legez kanpo zeharkatzen dute eta “bajador” talde batek eraso egiten diete. Eraso eta gero Teo eta Wenceslao banatzen dira eta ez dira berri elkartzen, baina Teori Chuyk (taldea gidatzeko ardura duen haurrak) lagun du egiten dio. Chuyk Teo bueltan eramaten du Ciudad Juarez-era. Bertan bizi da Chuy bere amarekin batera, eta Teori bere etxean gelditzeko eskaintzen dio. Egunak pasatu ahala Teo eta Chuyk-en arteko adiskidetasuna sendotzen doa, baina Teoren aita ez da egunero iristen diren deportatuekin batera iristen. Hori dela eta, Teok hurrengo gurutzaketa egiten saia dadin erabakitzen dute.

